



Ba al dago euskararen gatazkarik?

*Euskararen eta hizkuntz
ideologia kontrajarrien
estraineko azterketa kritikoa*

Beñat Garaio Mendizabal

Tutorea: Iñaki Martínez de Luna

Laburpena:

Euskararen egoera eta Euskal Herriko egoera politikoa eskutik helduta joan dira aspalditik eta harreman hau ez da salbuespena izan azken mende erdi honetan. Gatazka armatua garrazten joaten zen heinean polarizatzen ziren euskal gizartearen ikuspegi eta jokabideak eta horrek gaur egungo giro politiko nahasean eragin du. Elkarren arteko kontrajarriak ziren gaiak hamaika izan dira, baina lan honetan bakar bat aztertuko da: euskara. Euskara gatazkaren alde bateko hizkuntza bilakatu zen gehienbat eta mutilazio horregatik ez da erabateko adostasunik lortu hizkuntzaren biziberritzearen alde. Bestalde, markatutako hizkuntza den heinean, bere inguruko gertaerek eta esanek gatazka armatu-politikoa hobeto ulertzen laguntzen digute. Hau honela, lan honen helburua euskararen balizko gatazka nolakoa izan den deskribatzea izan da, diskurtso erasokor eta kontrajarriak era kritikoan aztertuz. Helburu behinena, edonola ere, gatazkan dauden ikuspegiak gaingiduz euskararen aldeko adostasun zabal bat lortzea da, eta bide batez, euskal gatazka-armatuaren konponketan ekarpentxo xume bat egitea.

Hitz gakoak: euskara, gatazka, ideologiak, konponketa, CDA

Eskertzak:

Lehenik eta behin, guraso, anai eta Estiri, horrela maitatzeagatik, nik hartutako bidean sinesteagatik eta irizpide propioa garatzen laguntzeagatik. Ondoren, Jon, Peru eta Aneri, liburuak une batez baztertzean arnasmunetxo polit bat eskaintzeagatik. Hirugarrenik, Iñaki, Miren, Jone, Julia eta Irantzuri, zuen askotariko ekarpenengatik ez balitz lan honek ez bailuke erdia ere balioko. Eta bukatzeko, eta bereziki, zuri, irakurle, zuregatik ez balitz lan honek ez duelako deus ere balio. Lasai irakurri, berrirakurri eta zabaldu, horretarako egina baita.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Marko teorikoa.....	7
2.1. Euskararen Herriaren historia laburra.....	7
2.1.1. Euskal Herriko Historia Laburra (Egaña, 2013:136-9).....	7
2.1.2. Euskararen historia.....	8
2.2. Nazionalismoa eta hizkuntza-nazionalismoa.....	10
2.3. Hizkuntzen normalizazioa eta sukaldeko lanaren garrantzia.....	12
2.3.1. Hizkuntza gutxituen biziberritzeari buruzko bi hitz	12
2.3.2. Aldez Aurretiko Zehaztapen Ideologikoa	13
2.3.3. Euskara normalizatzeko errezeta berritzaile eta partekatuak.....	13
2.4. Zer dagoen gure hizkuntzen gaineko desadostasunen atzetik.....	15
2.4.1. Hizkuntzen ideologia, eta ideologiaren hizkuntza	15
2.4.2. Euskararen framing berri bateruntz	16
2.4.3. Bi hitz Euskal Herriko Framing-aren inguruan	18
2.5. Gatazken sarrera bat.....	18
2.5.1. Nola sortzen dira gatazkak.....	19
2.5.2. Talde ezberdinen arteko gatazka motak eta biolentziaren erabilera gatazka horietan	20
2.5.3. Hizkuntza gatazkak.....	22
3. Metodologia	24
3.1. CDA edo <i>Critical Discourse Analysis</i>	24
3.2. Zein “Edukien Analisi” erabiliko da zehazki?	25
3.3. "There is no view from nowhere" (Nagel, 1986).....	25
3.4. Zer aztertu dut zehazki?	26
3.5. Lagina	26
4. Emtitzak.....	27
4.1. Gatazka diskurtsibo honetan harilkatuta.....	28
4.1.1. α. Gakoa:“Euskara hizkuntza gatazkatsua da”	29
4.1.1.1. Kanpo-taldearen deshumanizazioa	32
4.1.1.1.1. Kosmopaletoak, paternalistak eta beste hainbat tribu.....	34
4.1.1.2. “Haritz eroriari orok egur!”	35
4.1.1.3. Gatazka egoera batean lidergoa eskuratu nahiean	41
4.1.2. β gakoa: Zer nolako herrialdea irudikatzen duzu?	42

4.1.2.1. Euskara hizkuntza gutxitua al da? Merezi du biziberritzeak?	
Linguizidiorik egon zen?	44
4.1.2.2. Euskararen inposaketa	48
4.1.2.3. Hizkuntza eskubideak eta askatasuna	52
4.1.3. Ezinikusitik gatazkara igarotzeko hiru tresna	55
4.1.3.1. Gerrako hiztegia erabiliz.....	55
4.1.3.2. “Lip-service”	55
4.1.3.3. Zientzia eta azterketa zientifikoekiko mesfidantza.....	56
4.2. Beste aldagai batzuk esaten digutena.....	58
5. Ondorioak	59
5.1. Ondorio zehatzak	61
5.2. Nola hobetu daitekeen lan hau	62
5.2. Hemendik aurrerakoak.....	63
6. Bibliografia	65
6.1. Erreferentziak.....	65
6.2. Aipuak	69
7. Eranskinak.....	73
A eranskina. Lagineko materiala.....	73
B eranskina. Eskuragarri ez dauden lagineko materialak.	78

“Mila urte igarota,
ura bere bidean”

“El euskera, por supuesto, no es libre de esta dinámica funcionalista de integración-conflicto que posee toda lengua. Así, del mismo modo que se acusa a los nacionalistas de utilizar el euskera como ‘un instrumento al servicio de intereses políticos, un arma para recuperar la soberanía de un pueblo...’ sus propios acusadores reconocen expresamente que ‘la adopción de un idioma común’ (el castellano) en un territorio dado (España) es un paso gigantesco para regionalizar las naciones, para obstruir que se nacionalicen las regiones” (Eusko Jaurlaritza, 1983: 11)

1. Sarrera

Anaut-ek (in Kontseilua, 2015) dio euskarak bizi izan duen zapalkuntza Euskal Herriak mendeetan zehar bizi izan duen gatazkaren parte garrantzitsua dela, nahiz eta gai hau zeharo baztertuta egon izan den agenda politikoan. Ordea, ezagunak dira, esaterako, “El libro negro del euskera” (Torrealдай, 2001) eta Anaut beraren “Euskararen kate hautsiak” (2013) liburuak, non euskararen zapalkuntza ondo baino hobeto deskribatuta dagoen. Euskararen zapalkuntza hori gatazka politiko-historiko horren barruan kokatu beharra dago, ezinbestean. Dena den, txanponaren beste aldean euskararen biziberritzea gehiegizkotzat jotzen duten horiek daude, zeintzuk iragan ilun honi garrantzia kendu eta euskararen alde egiten ari diren lan eta ekimen hauei zilegitasuna kentzen dieten. Esan beharrik ez dago, Euskal Herriaren zatiketa politiko eta kultural hau estuki lotua dago hizkuntzei buruzko ikuspegi kontrajarri honekin, eta inolako orokortzerik egin ezin den arren, euskal abertzaleak euskararen biziberritzearen alde engaiatu dira, eta espainiar (eta frantziar) nazionalistak, berriz, hautu horrekiko uzkur edo zalantzati.

Hizkuntzak eta gatazkak oso lotuta daude, eta hainbat egilek (MacGiolla Chriost, 2003 eta May, 2010) hizkuntzak gatazken sorrerarako aldagai garrantzitsuak direla uste dute. Bestalde, Chomsky-ren aipua (1979 in May 2000: 368) da honako hau: “*Questions of language are questions of power*”. Llinoles-ek ere antzeko baieztapen bat bota zuen (1972:57): “boterea esatea, hierarkia esatea da”. Beraz, Euskal Herriko xake taulan boterea nork lortuko duen dago jokoan, eta Cooper-ek (1997:163 in Moreno Cabrera, 2009:62) esan zuen bezala, boterera iristen den komunitateak bere hizkuntza propioa gainjarri nahi du; bere hizkuntza eta bere ikuskera, bere balioak, bere kontakizuna, etab.

Euskal Herriko gatazka (armatua) konpontze bidean dagoen honetan eta konponbide partekatu bat eman nahi zaion honetan, ezinbestekoa da hemen euskararen

gatazkarik egon den edo ez jakitea, eta gatazkarik balego, gatazka nolakoa den deskribatzea. Llinoles-en “Idioma y Poder Social” maisulanean (1972:101), honakoa esaten da hizkuntza gatazken harira: “*para comprender el conflicto lingüístico en cualquier sociedad histórica debemos acudir al conocimiento de su génesis*”. Eta hori da, hain zuzen ere, lan honen helburua.

Azkeneko helburua, jakina, gatazka hori gaindituz azkenaldian hamaika aldiz aipatu den euskararen kontsentsu zabala lortzea da¹, euskara esparru gatazkatsutik atera eta denona egitea, alegia. Zorionez, bada jomuga bera duen ekimenik, eta erakunde-mailan EGOD (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoak) aipatuko genuke, Euskal Autonomi Erkidegoko Hizkuntza Politika Sailburuordetzak abian jarritako ekimena. Irakurtzen ari zaren lan honek EGOD bezalako egitasmoentzako baliagarria izan nahi du, gizartearen diskurtsoak aztertuz euskararen biziberritze nekatua beraktibatzeke.

Izan ere, eta azkeneko Ikerketa Soziolinguistikoak eta Kale Erabileraren neurketak dioten bezala², euskararen erabileraren hazkundera geldituta dago kuantitatiboki (ezagutza hazten doan arren), baina kualitatiboki ere euskararen aldeko hauspoa apur bat ahuldu delakoan daude hainbat eragile. ‘Berrikasi eta berrikusi’ (Topagunea, 2015:1) txostenetik aterata dago ondorengo hausnarketa:

“Badira urte batzuk euskaltzaletasuna ziklo aldaketa batean dagoela azpimarratzen ari dela. Euskalgintzaren hamarkadatarako ekarpena eta horrek komunitatearen hazkundera izandako eragina agerikoa izan da, baina era berean, azken urteotako datuetan geldialdi zantzuak nabarmenak dira.”

Horretarako, liburu, txosten eta komunikabideetan kolore ezberdinetako alderdi eta eragileek euskararen inguruan egindako adierazpen esanguratsuenak aztertuko dira, Critical Discourse Analysis metodologia erabiliz. Iritzi-artikuluak, bat-bateko iritziak eta lanketa berezi baten bitartez igorritako adierazpenak ikertuko dira, bai gizarte planoan eta baita joko politikoan ere, eta garrantzia emango zaio ahalik eta lagin zabalena eta anitzena lortzeari.

Hizkuntza gatazken arloan egon den aditu garrantzitsuenetariko bat izan dugu Peter Nelde belgikarra, eta berak esana da (1994:10) hizkuntza-gatazken arloan ikerketa zientifikoen gabezia izugarria dagoela. Izan bedi lan hau zor hori kitatzeko aukera bat, baina areago, euskararen normalizazioak beste bultzada berri bat izateko eta gure herriaren historia gatazkatsu honek irtenbide eraikitzaile, baketsu eta iraungarri bat izan dezan ekarpen xume bat.

1 ikus, adibidez, Berrikusi eta Berrikasi txostena -Topagunea, 2015

2 Ikus

http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf
eta <http://www.soziolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emitzen%20txostena.pdf>,
hurrenez hurren

2. Marko teorikoa

2.1. Euskararen Herriaren historia laburra

Modu laburrean egingo bada ere, hizkuntza gatazka hau ulertzeko ezinbestekoa da gatazkan dagoen lur-eremuaren historia ezagutzea. Euskal Herrian dago kokatua gatazka hau, berez gatazkatsua den izen bat, baina ikerketa honetako azterketa batik bat Hego Euskal Herrian egingo da, eta Hegoaldetik, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan. Dena den, komenigarria da herri osoaren historia jakitea, hainbat gauza ulertzen laguntzen baitu.

Nahiz eta euskararen eta Euskal Herriaren historia lotuta egon, bakoitza bereizita azalduko da ondorengo lerroetan, irakurlearen lana errazte aldera.

2.1.1. Euskal Herriko Historia Laburra (Egaña, 2013:136-9)

Tribuetan banatuta egon ostean, 602. urtean Baskoniako Dukerriaren sorrera izan zen, euskaldunon lehenengo ‘estatua’. Beti bezala, hainbat bizilagun indartsuengandik inguratua zegoen, baina independente mantendu zen harik eta 768. urtean frankoek Baskonia konkistatu zuten arte.

Mende erdi pasatxo ostean, Iñigo/Eneko Aritza buru zuen Iruñeako Erresumaren sorrera jazo zen 824. urtean, ondoren garatu eta Nafarroako Erresuma bilakatuko zena. Erresuma honetan zeuden gaur egun ezagutzen ditugun 7 probintziak, eta baita inguruko hainbat lurralde ere. Baina gaur egungo EAEk zuen banaketa eta botere-norgehiagoka zirela eta, bandoak sortzen joan ziren eta Gaztelak banaketa hori probestu zuen 1200. urtean Araba, Durangaldea eta Gipuzkoa konkistatzeko. Hori izango zen urteetan euskaldunok bizi izan dugun ezinikusi eta banaketaren hasiera. Nafarroak, Lapurdik eta Zuberoak Nafarroako Erresumako parte izaten jarraitu zuten hainbat mendez, baina 1512an eta beste euskaldun batzuen laguntzarekin, Gaztelak Nafarroa Garaia konkistatu zuen. Saiakerak saiakera, nafarrek ez zuten askatasun hori berriro lortzerik izan eta are gehiago ahuldu zen euskaldunen arteko batasuna.

1617an ‘batu’ zitzaion Iparraldea Frantziari eta ordurarte bizitako kultur loraldia amaitu eta frantseste prozesu azkarra abiatu zen.

Hurrengo urteetan euskaldungoaren sentimendua ahuldua zegoen oro har, baina 1833an hasitako lehen karlistaldian ikusi zen euskaldunek euren berezitasunen alde borrokatzeko zuten desira. Bide batez, gerra horietan ere mende batzuk lehenago ikusi zen euskaldunen arteko banaketa ikusi ahal izan zen.

1895.ean sortu zuen Sabino Aranak EAJ, eta mugarri horren ostean indartu zen Euskal Herri ‘aske’ eta ‘berezi’ baten aldeko aldarria. Horrek ere euskararengan izan zuen eraginik, eta adibidez, 1914 lehen ikastola sortu zen.

Baina Primo de Riveraren, eta bereziki, Francoren diktadurek euskaldunak (eta Espainiako gutxiengo guztiak) galbidera eraman zituen, bortxaz. Bide hori iraultzeko sortu zen ETA erakundea 1958an eta gorabeherak, eszizioak, eta norabide alaketak izan arren, horrela mantendu zen 2011. urterarte. ETAren eta Espainiar estatuaren (eta hainbat talde armaturen) arteko gatzaka armatuak min izugarria eta aurretiko banaketa areagotzea ekarri ditu.

Bien bitartean, 1979an EAEko Autonomia Estatutua sortu zen eta 1982an, berriz, Foru Hobekuntza Legea Nafarroan³.

2.1.2. Euskararen historia

Erizek (2009:69) luze eta zabal aztertu duen bezala, Nafarroako Erresuma aske horretan ere euskarak ez zuen leku garrantzitsurik boterean zeudenen artean, eta latina eta erromantzea izan ziren, idatziz behintzat, hobestutako hizkuntzak. Izan ere, eta Hegoaldeko beheko muturrak salbu, “herria idazten ez zen hizkuntzan mintzo zen” (Xamar, 2010:79). Horrela, Euskal Herrian euskaldun elebakarrak ziren gehiengoa zegoen, beraien bizimodua euskaraz aurrera ateratzeko arazorik ez zutenak.

Baina Gaztelaren konkistaren ondoren, urte batzuk pasatuta, iritsi ziren debekuak, estigmatizazioa eta erdalduntzea (Xamar, 2010:111). Euskarak izugarrizko abagunea galdu zuen momentu horretan, Europako beste ‘estatuetan’ orduantxe ari baitziren euren berezko hizkuntzak lantzen eta hizkuntza nazionalak garatzen (Azurmendi, 1992:469). Azurmendik (ibid.) berak galdetzen du ea zer zatekeen euskara orain gure burujabetza galdu ez bagenu (edota, beranduago galdu izan bagenu).

Debekuak, jauntxoek abiatutako diglosiak eta menpekotasun honek eraginda, XVI. menderako erdara jada hasi da bidea egiten (Xamar, 2010:125) eta muturretatik hasita, Euskal Herria erdalduntzen hasten da. Eskolen agerpenak eta Estatuko Administrazioaren jardun zentralizatzaileak erdararen errotzea ahalbidetzen du, hurrengo mendeetan ikusiko dena (ibid. 140).

³Ipparralde Elkarreko Bateria lortzekotan dago lerrook idazten ari diren une hauetan.

XVIII. mendean joera uniformizatzailerik honek okerragora joatea besterik ez du egiten eta Frantziako “Nazio bat, hizkuntza bat” aldarriak pipiak jota uzten du euskararen herria (Xamar, 2010:151).

Euskararen ahulezia erabatekoa da, XIX – XX mendeen bitartean kontzientzia pizten hasten den arte (ibid. 202), baina 1936an euskararen eta Euskal Herriaren alde abiatutako egitasmo hauek lurperatu edota erbesteratuko dira, euskaldunak, oro har, galtzaileen bandoan lerrokatu baitziren (Topagunea, 2015:3).

1950-1975ean alde batetik, Euskal Herrira heldutako erdaldunen etorrera nabarmena dugu, Euskal Herriaren egituraketa demografiko-kulturala irauli zuena. Bestalde, 1970etik aurrera militantzia jaioberri eta klandestino (Hegoaldearen kasuan) dugu (Topagunea, 2015:3), euskararen odolustutzea eten eta euskarari etorkizuna ahalbidetu ziona.


Baina Francoren azkeneko urteetan eta Trantsiziotik aurrera, euskararen eta Euskal Herriaren aldeko militantzia zatitu eta talde-barneko desadostasunak agertu ziren, orain ere ikusi daitezkeenak (ibid. 4).

Gainera, (euskal) abertzaleen artean zegoen/dagoen lehiak ez du batere lagundu euskararen alde egiteko (ibid. 5), izan ere, hizkuntzaren gaia beti gelditu izan da bigarren mailako leku batean.

Gaur egun euskararen biziberritzea makalaldi batean dago, barne- eta kanpo-faktore indartsu batzuen ondorioz, hasteko. Faktore horiek globalizazioa, abertzaletasunaren atomizazioa eta ahultzea, ingeleraren garrantzia, hizkuntzaren funtzio sinbolikoa ahuldu izana eta euskararen normalizazioa egina den irudipena izan daitezke (ibid.). Bestalde, euskararen biziberritzea makalaldi batean dago horrela esaten dutelako datuek.

Beheko grafikan ikusten denez, jarrerak, gaitasuna eta erabilera harreman proportzionala dute eta lehenengoak aldatu ezean, ez dira beste biak aldatuko. Hortaz, ezinbestekoa dirudi euskararen aldeko Euskal Herri mailako babes bateratu bat, bestela euskararen hobekuntza geldo horrek kontrako norantza egin dezake edozein momentutan.⁴

4 Nancy Dorian-ek ‘tip’ deitu zion bat-bateko aldaketa honi



1. irudia: Jarrera, gaitasuna eta erabileraren artean dagoen harremana. Iturria: EGOD, 2015:11

Horrela dio Topaguneak kaleratutako Berrikasi eta Berrikusi txostenak (2015:10):

“Sinetsita gaude asko komeni zaiola euskararen komunitateari esparru komunak sendotzea eta zabaltzea, beharrezkoa dugula euskaltzaleok barneratzea batzen gaituena garrantzitsuagoa dela eta soilik denon arteko lankidetzarekin lor lezakeela euskarak bere iraganari dagokion etorkizuna.”

Erronka, beraz, euskararen eta Euskal Herriaren historian ikusi dugun harreman gatazkatsu hau gainditzean datza.ondorioak

2.2. Nazionalismoa eta hizkuntza-nazionalismoa

Nazio-estatuen sorrerek ekarri zuten hizkuntza politika elebakarren ikuspegi modernoena, eta beharbada, Frantziako Iraultzaren ondoren sortu zen “Nazio bat, kultura bat, hizkuntza bat” axioma izan zen horren ‘erruduna’.

Norberaren kolore politikoaren arabera, beti hitz egin izan da nazionalismoen bertute eta kalteez, eta horrela, norberaren kasuan 1) “nazionalismo ona da gurea” eta 2) “gurea ez da nazionalismoa” planteamenduak daude⁵. Besteen nazionalismoaren kasuan, normalean planteamendu baztergarriak eta arrazistak direla esan izan ohi da. Beraz, zer da nazionalismoa?

⁵ Ikus Moreno Cabrera (2009:60), ikusteko espainiar nazionalismoari espainiar nazionalistek eurek egiten dioten ukapena; nacionalismo kaltegarria euskaldun, galiziar eta kataluniarrei atxikiz.

Ulertzeko erraza denez, hona ekarriko dugu Ulises Moulines filosofoaren ekarpena (in Esparza Zabalegi, 2006:352). Berarentzako, nazionalismoa nazio bat osatzeko proiektua da, besterik gabe. Proiektu hori nazioa egiteko gai ez bada eta bere baitan dagoen nazio txikiago batek askatasuna lortu nahi badu, aske izaten utzi beharko lioke. Hau honela, izateko eskubidea duten nazioen nazionalismoa dugu eta nahi hori zanpatzeko hegemonismoa edo kontranazionalismoa

Zentzu berean definitzen ditu Guibernauk nazio-estatuak (1996:115): nazio baten aldarrikapenak jasotzen dituen proiektua nazio-estatu litzateke, eta bestalde, nazio proiektu hori inposatzen duena, estatu-nazioa.

Gurera ekarrita, esan liteke euskararen alde dauden gehiengoa nazio-estatu euskaldun baten alde dabilen nazionalistak direla, eta ordea, euskararen normalkuntza oztokatzen dutenak, estatu-nazio espainiarreko hegemonista/kontranazionalistak.

Baina Moulines eta Guibernau-ren bi zehaztapen horiek ez dira guztiz neutralak, nazio txikien nazionalismoa hobesten baitute. Hau honela, Coluzzi-ren sailkapena (2007) erabiliko dugu. Egile honek bi nazionalismo mota bereizten ditu, mikro eta makronazionalismoa, bakoitzak beste bi azpi-talde dituelarik, progresiboa eta kontserbadorea. Mikronazionalismoek lurralde unitate txikiago baten edo talde etniko edo kulturalen alde egiten dute, zeintzuk normalean beste herrialde bat(zu)en menpe dauden. Adibide bat Eskoziako SNP litzateke. Bestalde, makronazionalismoa dagoeneko herrialde baten jabe diren horien alderdi politikoaren ideologia hegemonikoa da, Italiako Forza Italia den bezala.

Hau ikusita, duela gutxirarte indarrean egon den EAEko indar politikoaren banaketara iritsiko ginateke, euskararen aldeko engaiamenduarekin zerikusi zuzena duena:

Focus	Micronationalisms	Macronationalisms
Ideology		
Conservative		
Progressive		

1.Taula: EAEko alderdien kokapen ideologikoa. Iturria: Garaio, 2016:11, Coluzzi 2007-tik moldatua.

Baina kontzeptu eta sailkapen guztiak zalantzan jartzen hasita gaudenez gero, zaila da nazioa zer den zehaztea. Edonola ere, Anderson-ek (2006:35) nazioa imajinatutako komunitate politiko baten gisan definitzen du. Irudikatutako komunitate hori indartzeko asmoz, hizkuntza bat “lurralde zati batekin” lotzen da (McRae, 1975 & Laponce, 1984) eta hizkuntza identitatearekin, aldaketa sozialarekin eta hazkunde ekonomikoarekin lotuz, estatu batek bere hiritarrak monitorizatzeko makinaria jartzen du

martxan (Adrey, 2009:30). Horretarako, eliteek euren hizkuntza aldaera sustatzen dute (Cooper, 1997 in Moreno Cabrera, 2009:62), hegemonia politikoa, militarra, demografikoa eta ekonomikoa hizkuntzaren alorrera lekualdatuz (Moreno Cabrera, 2009:93).

Alde baten eta bestearen egoerak erabat lerrokatzen ez diren arren, gure egiten dugu Martínez de Luna-k (2013:61) esandakoa: “Framing Aldarrikatzailea Framing Uzkurraren ifrentzua edo binperra baino ez da; alegia, espainiar nazioa/estatua/hizkuntza hirukoteari aurre egiten dion euskal nazioa/estatua/hizkuntza hirukotea.”⁶

2.3. Hizkuntzen normalizazioa eta sukaldeko lanaren garrantzia

Errezetarik gabe egindako plater dastagarri gutxi egongo dira, eta are gehiago, plater horiek jatun horien nahiei bizkarra ematen badaude. Ikusi izan den bezala, hizkuntza gutxituen normalizazioa ez da mokadu erraza, eta gutxiago zure helburua den gizartea zure mahaian era abegikorrean esertzera ez baduzu gonbidatzen.

2.3.1. Hizkuntza gutxituen biziberritzeari buruzko bi hitz

Hizkuntza galera esaten zaio hizkuntza jakin batetako hiztunek euren hizkuntza erabiltzeari utzi eta beste bat erabiltzen hasten direnean, zeinek normalean balio ekonomiko, sozial edo politiko altuagoa duen (Fishman, 1991). Ikusita euren hizkuntza desagertzeko arriskuan dagoela, hizkuntza-komunitate askok gorputz eta arima eskaintzen diote hizkuntzaren biziberritzeari, zeinek hizkuntza hautuak eragiten dituen ezarpen sozialak aldatzea duen helburu (Grenoble and Whaley, 2006:69). Era berean, hizkuntzaren statusa, prestigioa eta erabiltzeko aukerak aldatzeari hizkuntza politika eta plangintza deitzen diogu.

Ageriko hizkuntza plangintza bat ez izatea, *de facto*, hizkuntza plangintza mota bat da (Nettle and Romaine, 2002) eta hau eta beste modu batzuk erabiltzen ari dira hainbat estatu hizkuntzak desagertarazteko. Nahiz eta kontzeptu honek hainbat iskanbila sortu duen (ikus Blommaert, 2001), Skutnabb-Kangas-ek (2000:312) “hizkuntza genozidioa” edo “linguizidioa” teorizatu zuen. Honen arabera, agenteek “hizkuntza hil nahi dute hiztunak hil gabe” (era aktiboan) edota “hizkuntza bat hiltzen uzten dute” (pasiboki).

Zaila da, ordea, linguizidio saiakerarik egon den edo ez ebaztea, baina argi dagoena da “planifikatu gabeko bizikidetzak soilak hizkuntza gutxituen heriotzean amaitzen du[ela]” (Skutnabb-Kangas 2000:312).

6 Framing-aren azalpena [2.4.2. atalean](#)

Beraz, kontaktuan dauden bi hizkuntzen artean ahulena sostengatu eta biziberritu nahi badugu, lehen aipatu dugun hizkuntza politika eta plangintza (hemendik aurrera HPP) diseinatu beharko da.

Edonola ere eta Fishman-ek salatzen duen legez, hizkuntza biziberritzeko saiakera horiek batzuetan aurrelanketarik gabe egiten dira, batez ere, eragingo dien giza-taldeekin partekatu eta haien ekarpenik jaso gabe. Izan ere, Txepetx-ek (1991:246) esana da, adibidez, euskara biziberritzeko prozesu batek ezinbestean erdaldunari eragingo diola.

2.3.2. Aldez Aurretiko Zehaztapen Ideologikoa

Fishman-en “Prior Ideological Clarification” delako hori luze eta zabal jorratu da akademian, baina badirudi oraindik ere hainbat hizkuntza-komunitateetako eragileak akats bera egiten jarraitzen dutela (Fishman, 1991; 2001; Dauenhauer & Dauenhauer, 1998; Kroskrity, 2009).

Kontzeptu honen aburuz, hizkuntzen biziberritzeek, baldin eta arrakastatsuak izan nahi baldin badute, ezinbestekoak dituzte negoziazioak, elkarrizketak, eta batik bat, sortu daitezkeen hainbat dilemari emango zaizkion balizko erantzunak.

Esaterako, kontutan hartu ondorengo ‘dilema’ hauek eta saiatu, nahi duzun hizkuntza-komunitatearen egoeran jarritz, erantzun sendo eta eraikitzaile bat ematen:

- Zein da hizkuntza hau biziberritzearen helburu behinena? Hizkuntza-ekologia eta aniztasuna? Herrialde horren independentzia? Marka sinbolikoa indartzea?
- Nor sartu nahi da plangintza horretan? Gizarte guztia? Hizkuntzaren aldekoak? Ume eta gazte soilik?
- Nola konbentzituko dira hizkuntza gutxitu horretatik urrun daudenak? Bortxaz? Ez dira konbentzitu nahi? Konbentzituko dira bere kabuz?
- Zein ardura izango du hizkuntza hedatzaileak lortu nahi den gizarte-eredu berri horretan? Hizkuntza gutxitua bihurtuko da? Hizkuntza-eskubideak bermatuko dira? Bi hizkuntzen berdintasuna hobestuko da?

Irudikatuko zenutenez, euskararen normalizazioak, bere prozesuaren makalaldia ikusi eta gero, badu beharra galdera hauei erantzuteko. Izan ere, azken urte hauetan euskararen biziberritzearen bilakaerak ezagutu dituen mugak gainditzeko horrelako ariketa bat egitea beharrezkoa da. Dena den, esan beharra dago ariketa hori egiten aspaldi hasi zirela hainbat eragile eta ikerlari.

2.3.3. Euskara normalizatzeko errezeta berritzaile eta partekatuak

Martínez de Lunak (2013:66) erantzun zion Fishman-i, dilema horiek argitzerako orduan. Hona hemen ‘gatazkan dauden hizkuntzei’ irtenbide bat emateko proposatutakoa:

“a) Askotariko sistema: hizkuntza guztiek sistema bakarra osatzen dute, askotarikoa, non hizkuntza bakoitzak bere lekua duen.

b) Berdintasuna: sistema horretan hizkuntza guztiek balio berdina dute, horien hiztun komunitateak txikiak izan ala handiak izan, boteretsuak ala txiroak.

c) Ekosistema: hizkuntza bere ingurumarian ulertu behar da, alegia ingurune sozialaren kudeaketa soziolinguistiko egoki baten bitartez, horrela eginda, ekosistema horretan gehiegizko desantolaketarik gerta ez dadin.

d) Oreka: ukipen egoeran dauden hizkuntzen arteko oreka bilatu behar da, subsidiaritate printzipioa erabiliz eta hizkuntza gutxitukoei ezinbestekoak zaizkien oinarritzko funtzioak gordez.

e) Aberastasun unibertsala: hizkuntza denek, txikiek barne, aberastasuna ematen diote gizadi osoari eta, hizkuntza horiek, guk geuk jakin ala ez, guztion ondare ditugu.”

Era berean, baliagarria iruditu zaigu lerroalde batzuk beherago gaineratu zuena hemen aipatzea. Kataluniako egoerari buruz ari zen, Fernández-en (2011:4 in Martínez de Luna, 2013:70) hitzak jasoz, baina berdin balioko luke euskararentzako hark aipatutakoa:

“1) Berreskuratzetik irabaztera;

2) Hizkuntzaz aldatzetik norberak aukeratutako eta gidatutako eleaniztasunera;

3) Integraziotik adopziora;

4) Biziraupenetik ongizatera;

5) Sakrifiziotik saritutako ahaleginera;

6) Kataluniako berariazko hizkuntzatik katalan guztien hizkuntzara.”

Pausu hauek jarraituaz lortuko genuke hizkuntzen arteko (edo hiztunen arteko) gatazka hau gainditu eta “hiztun berrien ikuspegia hizkuntzari buruzko diskurtsoen erdigunera ekarrita adostasun berriak lortzea” (ibid.).

Gure egilera itzuliz, eta euskararen biziberritzea indartzeko baldintza batzuk ezarritik, behar-beharrezkoa omen da euskararen “mamuak uxatzea”, argudioen bitartez Framing Uzkurraren indargabetzea, euskararen aldeko indarrak sendotzea eta euskara bortizkeria sinbolikotik ateratzea eta euskaltzaleen auto-estimua hobetzea (Martínez de Luna, 2013:54).

EGOD-en txostenean (2015:7-8) aipatzen dira baldintza horiek lortu eta hazi berri horiek euskal lurretan ereiteko zertzelada batzuk, eta ikusiko duzuenek, estrategia horiek marketing alorreko ekarpenekin lotuta daude⁷. Horrela, eta Kotler-en gomendioei jaramon eginez, EGOD-eko txostenean jendearentzat baliotsua den hori zer den jakitearen garrantzia aldarrikatzen dute, gerora mugimendu sozialen nahiek gizarte orokorraren nahiekin (edo framing-arekin, edo diskurtsoekin) bat egin dezaten.

⁷Ikus Erizeren (2009) artikulua, bide hau jorratzen baitu estrainekez Euskal Herrian.

Hartara, Prior Ideological Clarification azaltzean plazaratutako dilema horien erantzun horiek sortzen duten zelai horretan kokatzen badugu ‘gure eskaintza’, arrakastatsuak izateko aukera gehiago izango ditugu.

Eta berriro ere Martínez de Lunarengana jauzi eginez (2013:77-8), euskararen merkatu ikerketa egitea, xede-taldee berariaz egindako mezua zabaltzea, lehen aipatutako priming aleak jorratzea, framing desiragarri horretatik abiatutako komunikazio-estrategiak garatzea eta lehentasunak finkatzea⁸ lirateke normalizazioa lortzeko bide batzuk, besteak beste.

2.4. Zer dagoen gure hizkuntzen gaineko desadostasunen atzetik

Hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-ideologiak hizkuntza baten biziraupenean eragiten duten aldagai garrantzitsuenetariko bi dira (Dorian, 1994 eta Schiffmann, 1996), izan ere, hizkuntza batekiko (eta hizkuntza horrek ordezkatzeko duenarekiko) dugun lerrotasunak baldintzatzen dezake gure portaera. Gure portaera hori hizkuntza hautuarekin lotua egon daiteke, esaterako, A edo B kodea aukeratzearekin. Bestela, gure portaera horrek kutsu preskriptiboa izan dezake, bereziki botere-guneetatik gertu gaudenean. Horrela, erakundeetara iristen banaiz, eta pentsamolde jakin bat badut A kodearekiko, ziurrenik aukera gehiago izango ditut pentsamoldearen arabeko politika eta plangintzak burutzeko.

Ikergai honetan, euskararen inguruko diskurtso gatazkatsuak aztertuko dira, beraz, gure izatearen barren-barrenean dauden epaiak izan beharko ditugu kontutan. Horretarako, hizkuntza-ideologiak eta framing kontzeptuak landuko ditugu.

2.4.1. Hizkuntzen ideologia, eta ideologiaren hizkuntza

Gumperz-ek dioen bezala (1982:3), ideologiak “modelatze kulturalaren” antzekoak izan daitezke, baina Roberge-k dioen bezala (2000:146), ideologiak ez dira “ezta estatikoak, ezta unibertsalki onartuak ere”. Normalean garaiko gertaeretara eta aldatuz doazen baldintzetara egokitzen dira eta norbanako kontzienteen arrazoiak logikoaren neutralizatuak izan daitezke. Ideologietan eragiten duten aldagaiak oso zabalak dira: Dorian (1994) eta Schiffman-ek (1996), adibidez, ideologiek hizkuntza eta kultura galera duten garrantzia azpimarratu zuten. Dauenhauer eta Dauenhauer-ek (1998:63) aldarrikatu zuten ideologiak agerikoak (aldarrikatutakoak, kontzienteak, publikoak) nahiz pribatuak izan zitezkeela (jendarean adierazi gabeak, inkontzienteak eta ezkutukoak).

⁸ Fishman-ek esandakoaren harira

Lan honetan, batik bat, hizkuntza ideologiak aztertuko dira, zeini buruz Blommaert-ek (1999:1 in Austin.&.Sallabank, 2014:4) honako definizioa kaleratzen duen:

"Socioculturally motivated ideas, perceptions and expectations of language, manifested in all sorts of language use."

"Hizkuntzen inguruko eta soziokulturalki motibatutako idea, hautemate eta espektazioak, hizkuntza-erabilera mota askotan agertzen direnak."

Ricento-k (2000:4) hizkuntza ideologiak beste ideologia motekin lotuta daudela ondorioztatzen du eta Kroskity-k (2000:7) hizkuntza-ideologiak "ukitzen diren dimentsio-maila ezberdinak dituen kontzeptu kluster bat" direla gaineratzen du.

Van Dijk-ek (2000:9), berriz, ideologiak hizkuntza erabilera eta diskurtsoa moldatu ditzaketela dio, eta ideologiak, era berean, hizkuntza erabilera eta diskurtsoaren bitartez barneratu, ikasi eta moldatzen ditugula.

Kroskity-ri (2000) jarraituz, ideologiak aztertu eta azaleratzeak hegemonia zalantzan jar dezake eta horretarako proposatu den metodoetako bat (Critical) Discourse Analysis da, lan honetantxe erabiliko dena, hain zuzen ere.


2.4.2. Euskararen framing berri bateruntz

2010ean eman zion hasiera ekarpen honekin, baina 2013ko BAT-eko ale monografikoan plazaratu zuen Martinez de Lunak euskararen framing-aren teoria zabala. Esan liteke artikulu horien ostean, oinarriak jarriak zeudela Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsorako, izan ere, euskararen kontuetan gure komunitatean dagoen zatiketa baitzen behin eta berriz egileak gainditu nahi zuen egoera, adostasun zabala lortzearena, alegia.

Euskal gatazkaren ondorioak aztertzeko balio lezake, baina euskararen desadostasun hauen zergatia azaltzeko Canel eta Sanders-en (2005 in Martinez de Luna, 2013:17) ondorioztapen hau ekarriko dugu:

"Hizkera politikoaren bitartez egiten den gertaeren edo egoeraren interpretazioa (*framinga*) errealitatea sortzeko hiru moduetan erabil daiteke: iraganaren zein etorkizunaren ulermena eraikitzeke, agenda finkatzeko eta jendea jarduerara bultzatzeko."

Hain zuzen ere, beheko grafikoan ikusi daitekeenez, komunikabideen agenda, agenda eta iritzi publikoa eta agenda politikoa elkarri lotuta daude, eta esan liteke sare konplexu honetan indarrak bateratu eta norabide berdinean ekiten dion horrek lortuko duela "diskurtsoa menperatzea".



1. Grafika: framing, priming eta agenda setting kontzeptuak azaltzen. Iturria: Martinez de Luna, 2013:22

Era berean, komunikabideen agendatik etorriko dira agenda setting, priming eta framing fenomenoak. Labur-labur azalduko badira ere, “*Agenda setting*” delakoa agenda markatzea eta markatutako agenda hori onartzea litzateke; “*Priming*”-a, berriz, agenda horretako zein elementu iristen den modu orokortuan norbanakoarengana; eta “*framing*”-a, aldiz, “errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboak” (Scheufele eta Tewskbury, 2007: 11 in Martinez de Luna, 2013:24).

Adibide batekin argitzearren, esan genezake El Correo egunkariak euskararen biziberritzearen ondorioz sortutako kalteak argitaratzea erabaki duela azken urte hauetan (agenda setting) eta irakurleengana erraz iristen den mezua da hori, baina batik bat elementu bereizgarri bat, “euskara inposatzen ari dira” (priming). Bukatzeko, hainbat zalantza ideologikori emandako erantzunetik abiatuta (hizkuntza gutxituen geroa, zure nazioaren zilegitasuna, hizkuntzen garrantzia, etab.) sortzen den marko horretan kokatu behar dira gizabanakoaren ikuspegiak (adib. “Euskara biziberritzearen alde egiten diren gauzak gehiegizkoak iruditzen zaizkit”).

Martinez de Lunak berak framing-aren teoriarekin ireki al ziren ikerketa bide-berri batzuk proposatzen zituen (ibid. 26-27 orr.), eta horietako batean aipatzen zuen komenigarria dela aztertzea framing ezberdinek hizkuntza politiketan izan dezaketen eragina, edo beste era batera esanda, “iritzi publikoak dituen euskararen hautematea eta irudikapena aldarazteko eta aldekoagoa bihurtzeko asmoz, zabal litezkeen bide berriak proposatzea.” (Martinez de Luna, 2013:14).

Hots, euskal gizartearen eskemak aldatzea euskararen aldeko plangintza eta politika eraginkor eta arrakastatsuago bat izateko.

2.4.3. Bi hitz Euskal Herriko Framing-aren inguruan

Egile berak esaten du bi framing ezberdin daudela Euskal Herrian, Aldarrikatzailea eta Uzkurra. Bataren eta bestearen barnean dauden kideak ez dira inolaz ere berdinak, talde bakoitzaren barruan hamaika ñabardura baitaude, baina Martinez de Lunak (2013:40) bi aldeek partekatzen dituzten hainbat ezaugarri ikusten ditu:

- Biak dira “txanpon beraren ifrentzua” (“Nazio bat, hizkuntza bat” ikuspegia, alajaina)
- Bietan euskararen garrantzia jaisten ari da
- Komunikabideetan euskarak badu bere tokia
- Guztientzat izan dezake euskarak balio sinbolikotik zerbait, intentsitatea aldatzen den arren
- Euskara joku politikora aldatzean, orduan bihurtzen da gatazkatsua

Egileak (ibid. 43) gaineratzen du Framing Aldarrikatzailearen ezkutuko helburua beste framing-a asimilatzea litzatekeela, eta hori guztiz eginezina denez, orube berri bat behar da bakoitzaren zimentuak elkarrekin batera jartzeko.

Honenbestez, lan honen beste helburuetako bat ere bada framing delakoen teoriar sakontzea eta euskal gatazkan errotutako bi talde gatazkatsu hauen hesiak bota eta elkartzea.

2.5. Gatazken sarrera bat

Gatazkak dira ikergai honen aldagai nagusia, baina gatazkak zer diren esatea zaila da. Dena den, pentsatzekoa da gatazka bat egoteko modu bateko edo besteko talka bat egon behar duela, eta horrenbestez, irudi luke talka hori gertatzeko bi talde ezberdinen arteko kontaktua egon behar dela. Bi talde horien arteko ezberdintasun gatazkatsu horiek soslai askotakoak izan daitezke, izan politikoa, izan etnikoa, izan erlijiosoa, eta abar luze bat.

Gatazken alorrean bete-betean sartu aurretik, ordea, honako ondorio bat aipatu nahiko genuke, gure egiten baitugu gatazkak guztiz saihesgarriak diren baieztapena:

“Most conflicts of our time are internal conflicts, and many of these are due to the incapacity of societies and political systems to manage difference and diversity”.

(de Varennes, 2002:15).

Argi dago, beraz, gaur egungo gatazka gehienek jatorria gure egitura politikoen gabeziak datzala eta horrek esan nahi du gure erakundeek ezaugarriak eta jardunean eragin behar dugula, “beranduegi izan baino lehen”.

Eta gatazka “genesiarik” buruz ari garen honetaz, beste zertzelada bat, oraingo honetan IECAH erakundeak⁹ Pérez Villaverde (2015) arduradun nagusiaren ahotan: “gatazka guztien atzean desberdintasuna dago”.

Aniztasuna eta desberdintasunak. Ez dirudi hain konplexua, horrela ikusita behintzat.

2.5.1. Nola sortzen dira gatazka

Bere heriotzararte, Peter Nelde belgikarra izan zen (hizkuntza-)gatazketan aitzindaria eta berari esker hobeto ulertu dezakegu gatazka sorrera. Horrela, azaltzen du (Nelde, 1994:2) talde etnikoen arteko kontaktu gehienak ez direla era baketsu eta armoniatuan gertatzen, baizik eta beti dutela tentsio, mesfidantza eta desadostasun maila bat. Izan ere, ezaugarri hauek lehian dauden edozein egitura sozialaren ezaugarriak dira eta egoera jakin batzuetan, lehia-giro honek gatazka indartsuetara bideratzen gaitu, eta okerreana dena, biolentziara.

Dena den, hainbat soziologok esan dute taldeen arteko kontaktu orok sortzen duela gatazka, eta horretan ez da ados ageri Nelde (ibid.), izan ere, bakean bizi izan diren hainbat adibide ematen baititu ondoren¹⁰. Baina talde ezberdinen arteko aldeak status-aren inguruko zalantza sortzen dutela jakina da, eta ez hori bakarrik, talde horiek dituzten balio eta arauak talka egiten dutenez, eta jakinda arau bakarra onartzeko joera duela gatazka (Nelde, 1994:3), gatazka moral bat ere bada.

Gaineratzen du gatazka hauek gutxitan izaten direla agerikoak eta hain biolentoak, normalean borroka hauek zigor eta mehatxu sistema konplexu batean adierazten baitira. Gatazka hartzen duen bide ezkutatu hau omen da gatazka nondik norakoak ulertzeko, eta lehia horrek ezusteko intentsitatea hartzen badu, jakizue alor emozionalaren ondorioz gertatu dela, batik bat talde baten interes eta balioak kolokan daudela hauteman badira (ibid.).

Edonola ere, ezin da pentsatu gatazka guztiz kaltegarriak direnik, izan ere, kontutuan hartu behar da, eta hau hainbat eragilek esan dute behin eta berrir¹¹, gatazka errealitatea eraldatu eta hobetzeko aukera izan daitezkeela, izan ere, bizikidetzak hobetzeko eta talde horien arteko moldagarritasuna eta oreka lortzeko ezinbesteko aldaketak behartzen ditu gatazka batek. Hala ere, gatazka horiek sortutako zauriak ez badira sendatzen eta intimidazio erakustaldiek jarraitzen badute, gatazka sortarazten

⁹ <http://www.iecah.org/>

¹⁰ Hizkuntza-komunitateen artean gatazka ekidinezina zela ukatu zuen bat Ruiz (1981), izan zen, bere “hizkuntzaren inguruko ereduak” ekarpenarekin.

¹¹ Suleiman (2004:58) eta Llinoles (1972:43)

duten aldagaiak hor egongo dira luzaro eta orduan gatazka saihestezina izango da, berriro ere (Nelde, 1994:3).

Ziur asko hau irakurtzean, urrutira joan gabe irakurleari hainbat kasu etorriko zaizkio burura, eta horregatik aipu honekin bukatuko dugu atala:

“La negación de la diversidad étnica y cultural en la construcción del Estado moderno ha supuesto un coste político y social para la comunidad internacional que se ha traducido en el incremento de situaciones de tensión política y violencia en varias partes del mundo.” (González Hidalgo eta Ruiz Vieitez, 2012:2)

2.5.2. Talde ezberdinen arteko gatazka motak eta biolentziaren erabilera gatazka horietan

Atal honen sarreran esan den bezala, zaila da gatazka zer den definitzea eta horrek asko baldintzatzen du komunitateen arteko lehia zientifikoki aztertzerako orduan. Edonola ere, Llinyoles-en sailkapenaz (1972:19) baliatuko gara gatazka motak azaltzerako orduan.

Egile valentziarraren esanetan, gatazkek hiru esanahi ezberdin izan ditzake:

- 1) Gizarte batek duen atsekabea eta interes kontrajarrien ondorio den ezinegona adierazteko modua
- 2) Norbaiti aurka egitea helburu duen ekintza ororen pizgarria, biolentziarekin edo biolentziarik gabe
- 3) (Norbaiten) Aurkako ekintza sozial biolentoa

Ikusi daitekeenez, sailkapen honetako mailaketa eta deskribapena ere oso lausoa da eta zaila da egoera jakin bati bere ‘etiketa’ atxikitzen. Dena den, pentsa genezake 1) adibidea izan daitekeela berriki Abkhaziako eskoletan bertako hizkuntzak eta georgiera kentzean, errusieraren mesedetan, gurasoek sentitutakoa. 2) kasua, berriz, Katalunian aurki dezakegu, izan ere, protestak sortu izan dira¹² katalanezko murgiltze-ereduaren aurka. Bukatzeko, 3) litzateke Gales-en gertatzen edo gertatu izan dena¹³, non ingelerazko kartel eta seinaleak erasotu izan diren, galeserazko bertsioaren alde egiteko.

Sailkapen honen argitan, gatazka kontzeptua uste baino zabalagoa da, beraz, ezin da gatazkaren ikuspegi mugatzaile bat onartu, bazterrean hainbat egoera lehiakor eta bortitz uzteko arriskuan baikaude. Euskal Herriko egoeran ere berdina pentsa liteke, izan ere, zenbat egoera izango dira egunean dema horretakoak?

Baina sailkapen horretatik atera dezakegun beste ondorio bat ‘biolentziaren’ garrantzia da, izan ere, hiru multzoetatik bitan agertzen da hor. Biolentzia ere kontzeptu zaila da zehazteko, baina Osasunaren Munduko Erakundearen (2002:4) definizioa ekarriko dugu hona:

¹² [Hemen](#) duzue adibide bat

¹³ [Cymdeithas yr Gymraeg](#) erakundea izan da ekintza hauen arduradunetarikoa bat

“Pertsonen arteko elkarrekintza non, euren jokabideek, nahita, mehatxuak edota min larriak (fisikoak, sexualak zein psikologikoak) sortzen dituzten besteengan (gizabanakoak edota taldeak), euren egungo zein etorkizuneko ahalmenak murriztuz”.

Horretaz gain, biolentzia hiru atal nagusitan sailka liteke: norberarengana zuzendutakoa, interpertsonala eta kolektiboa. Bestalde, biolentzia forma bakarra ez dago, izan ere, biolentzia sozialaz, biolentzia politikoaz edota biolentzia ekonomikoaz baliatuz gatazka armatuak, errepresioak, genozidioak eta beste motatako giza eskubideen urraketak sor litezke.

Hain zuzen ere, nagusiki aipatutako hiru biolentzia horietatik hiru biolentzia mota bereizi genitzake:


- Zuzeneko biolentzia: bortxaz norbait erasotzea litzateke hau, eraso hori den modukoa dela. Hizkuntzen kasuan, norbaiti modu txarrean hizkuntza batean hitz egitera derrigortzea biolentzia izan liteke.
- Egiturazko biolentzia: gizabanako edo talde batek bere burua bestearen gainean jarri eta dominazio jarrera hori erabiltzen duenean izan liteke egiturazko biolentzia. Hizkuntzen kasuan, talde baten hizkuntza eskubideak beste talde baten gainetik jartzea, adibidez.
- Biolentzia kulturala: biolentzia kulturala dago beste bi biolentzien muinean eta deshumanizazioa eta enpatia falta lirateke ezaugarri nagusienak. Hizkuntza bat ‘okerragoa’ denez, eta hiztun horiek behe mailakoak, irudipen horretatik abiatzen diren ekintzak dira biolentoak, gure kasura ekarrita.

Are gehiago, beti daude biolentzia ikusgarri eta zuzenaren azpitik dauden biolentzia estruktural eta biolentziaren kultura bat, eta hauek ez dira hain erraz desagertzen. Eta are gehiago, biolentziaren gorpil zorua da kosta ala kosta ekidin beharreko zerbait:

“biolentzia zuzena >> biolentzia estrukturala >>> biolentzia kulturala >>> biolentzia zuzena >>> ...”

Hori dela eta, guk uste arren ageriko biolentzia eten delako bake egoera batean bizi garela, “biolentziaren ondorengoa erraz bilaka daiteke biolentzia berri baten aurrekaria” (Galtung, 1999). Horrela, “ez biolentzia egoera batean gerra eta garaipena ez dira lehentasuna, baizik eta bestearekin harremana jorratzea”.

Azken lerroalde hauek bereziki garrantzitsuak dira gure kasuan, izan ere, Euskal Herriak bizi duen egoera hau bakezkoa baino, *impasse* egoera baten edo ezkutuko biolentzia baten itxura gehiago du. Hortaz, behean dagoen hiruki horiek aplikatuz gatazkaren konponbidea landu beharko genuke, bakoitzak bere esparruan eta norberaren ahalaren arabera. Ezinbestekoa da hirukiaren hiru erpinak lantzea, bestela ez da bakea lortzen.



2. Irudia: Biolentzien azalpena eta konponketarako bideak. Iturria: Galtung, 1999 (M. Harizmendik moldatua).

Horrela, birgaitzea biolentzia ezarekin lotzen da, biolentzia zuzena etenez. Bide honen helmuga taldeen arteko berreraikitzea da. Bigarrenik, biolentzia kulturala eten nahi badugu, enpatiaren bitartez lortzen den birkulturazioa da tresna; adiskidetzea horrela lortzen da. Bukatzeko, biolentzia estrukturala sormenaren bitartez eteten da, bide berritzaileak jorratuz, eta egitura sozial osoago bat berregituratuz lortzen da gatazkaren ebazpena.

2.5.3. Hizkuntza gatazkak

Contradictio in terminis bat dela esan dezakegu, hasteko, “hizkuntza gatazken” kontzeptua, izan ere, eta ikerlari gehienak ados daude honetan¹⁴, hizkuntzen arteko gatazka ezinezkoa da, hizkuntza ezberdinak dituzten bi talde horien arteko hiztun/kideen arteko gatazka litzateke.

Baina Chriost-ek (2003:181) esaten duen bezala, gatazka askoren jatorria sinplifikatu egiten da eta horrek gatazka bera distortsionatu egiten du, gatazka beraren konponketaren kalterako. Horren harira, Llinoles-ek dio (1972:20) talka horren aldagai ekonomiko, sozial, eta politikoak aztertu behar direla nahitanahiez.

Izeberg-aren punta izan ohi da hizkuntza kasu askotan, gatazkan eragiten duten faktore guztiak ordezkatzeko baititu ‘hizkuntza arazoak’. Talka horren atzean dagoena, lehen esan bezala, ezberdintasuna, desoreka, mesfidantza eta gizarte hobekuntzarako trabak izan ohi dira (Nelde, 1994:4).

Beraz, ez harritu hizkuntza jakin baten inguruko liskartxo batek borroka armatua pizten badu, leku-izenak edo hizkuntza paisaia bezalako ‘liskar arinak’ badira ere (Spolsky, 2004:1). Suleiman-ek dio (2004:58), eta honetan zuzen dagoela esango genuke,

¹⁴ Suleiman, 2004:58; Nelde, 1994: 9; Llinoles, 1972:19; Euskararen Aholku Batzordea 2009:57-8 in EGOD, 2015:8.

hizkuntzari egindako erasoak komunitate osoari egindako eraso ankerrak balira bezala ikusten direla, eta hortik atxikitzen zaio hizkuntzari horrenbesteko garrantzia.

Era berean, hizkuntza politika izan daiteke gatazka horien erruduna eta ‘salbatzailea’, Williams-en arabera (2009:117). Horregatik da HPP hain alor garrantzitsua gizarte eraikitzaile eta irekiak osatzerako orduan. Horregatik da HPP herrialde bateko erakunde baten filosofiaren ordezkari behinena, plangintza horrek islatuko baitu erakunde horren ideologia.

Geldialdi txiki bat eginda, Mackey-k (1980 in Mac Giolla Chriost, 2003:181) dio garrantzitsua dela hizkuntza galeraren zergatiak ondo aztertzea, horrek argi gehiago igorriko baitio gatazka horren diagnosi eta konponketari.

Ez da harritzekoa, beraz, nazionalismoak hizkuntza nazionalen gorazarrea eta aldarrikapen horrekin lerrokatutako hizkuntza politika sustatu izana (Llinoles, 1972:11). [2.2. atalean](#) aipatu dugun bezala, bi nazionalismo mota ditugu eta alde bakoitzak hizkuntzekiko egiten duen hautuak bere ondorioak ditu. Adibidez, Mac Giolla Chriost-ek (2003:147) EAEko Hizkuntza Politika Sailburuordetza jartzen du jomugan, bereziki esanez, euskararen normalizazioa euskal abertzaleekin lotu denez eta horrek hizkuntza bera alienatu duenez, oposizioaren (espainiar nazionalisten) alde dauden hiritar gehienek euskararen alde hartzen diren erabakiak gaitzesten dituztela. Txanponaren beste aldean, Suleiman-ek (2004) dio nazio-estatuek barne-aniztasunarekiko duten ikuspegi eskasak gatazkak pizten dituela etengabe, eta bereziki azpimarratzen du herrialde arabiarretan azken hamarkadetan hizkuntza politikak izan duen aldaketa, non aniztasunean oinarritutako tradizioa baztertetik Europako estatuen ‘*nation-state building*’ estrategia uniformizatzaileak garatu dituzten.

Badago irtenbidea, ordea, eta horretarako Grenoble eta Whaley-k (2006:178) dute lehenengo errezeta:

“The most reliable way to avoid the majority of disagreements is to allow ample time for consultation in the beginning of the program, and to be willing to adjust methodologies, goals and intents as the program progresses.”

Horretaz gain, esaten dute ezin dela hizkuntza politika jakin baten emaitza aldeztatik ikusi, baina behintzat kontuan izan beharrezko irizpide bat politika horien negoziazio eta sozializazio zabala dela azpimarratzen dute.

Bukatzeko, Kymlicka bezalako egile oparo batek ere badu zeresana hizkuntza politikaren ondorioetan. Horrela, aipatzen du Mendebaldeko demokrazia askok “aniztasun etnokulturalarekiko mitoa” sinesten jarraitu izan dutela, pentsatuz aniztasuna bere kabuz desagertu, orekatu edo bideratuko zela. Jakina, uste honek eta jokabide honek ondorio tamalgarriak izan ditu askotan. Hori da, bere ustez, potentzia hauek behin eta berriro egin duten akatsa, ahaztuz herritar guztiak aintzat hartuko dituen trataera batek ekarriko duela oreka eta iraungarritasuna (Kymlicka, 2002:82-4).

3. Metodologia

3.1. CDA edo *Critical Discourse Analysis*

"Language is never neutral and texts are never innocent [...] all language choices are political" (Stubbs, 1996:235 in Adrey 2009:20)

Zergatik ageri da hain uzkur PP bertako hizkuntza babestu eta sustatzerako orduan? Espainiar agintariak alde zuzenetik egindako kaltea ez al du onartu eta konpondu nahi? Zergatik bi indar abertzaleek dute horrelako lehia euren artean eta zerk eramaten du bata edo bestea baieztapen jakin bat egitera? Nondik eratorri da UPN-k aurrera eramandako hizkuntza politika? Espainiar ezkertiarren hizkuntza-ideologiak zein jatorri eta funts du?

Horrelako galderek ezinbestean behar dute erantzun bat, baldin eta dauden desadostasunak barru-barrutik ulertu eta marko zabal bat eraiki nahi baldin badugu.

Honen harira, funtsezkoa da diskurtsoa deszifratzea, eta hartara, ideologiak ere xehetzea. Hori lortu ahal izateko, baina, hainbat kontzeptu azaldu behar dira (Jäger-etik hartuak, 2001:46-51). Lehenik eta behin, diskurtso-fragmentuak aztertuko ditugu, "gai jakin bati buruz aritzen den testu bat edo testuaren zatiak". Gai hauek, orduan, diskurtso planoetatik sortzen dira, non gai horiek kokatzen diren. Horretaz gain, hari diskurtsiboak ditugu, hots, plano horien edukiak, izaera sinkroniko eta diakronikoa duten uste multzoak, alegia. Ondoren, agente jakin batek ikuspegi diskurtsibo jakin bat izango du, edo beste era batera esanda, "kokapen ideologiko jakin bat" (Jäger, 2001:47).

Bukatzeko, oso kontutan hartu beharreko zerbait hari diskurtsoetatik sortzen diren korapiloak/harilkatutako gaiak (edo *discursive strands* delakoak) dira, zeinak horrela azaltzen dituen Jäger-ek (2001:48):

"When a text clearly addresses various themes, but also when a main theme is addressed in which, however, references to other themes are made."

CDA testuak aztertzeko erabiltzen den metodo bat da, egileari agente jakin baten ikuspegi filosofiko edo ideologiko bat azalartzea ahalbidetzen diona. Metodo hau erabilgarria da 1) "testuaren ideologia-aurreiritzien zantzuak aurkitzeko" (Taylor, 2004: 436), ideologia aztertu eta zalantzan jarritz; 2) "boterea eta menperakuntzarekin lotutako egoerei mozorroa erantzuteko"; 3) ideologia dominantea ulertzeko; 4) diskurtso opresoreei erantzun ahal izateko eta 5) "boterea gizartea eta agenda politikoa manipulatzeko nola erabiltzen den ikusteko" (Woodhouse-Jiron, 2004: 175).

3.2. Zein “Edukien Analisi” erabiliko da zehazki?

Lan honetan ikuspegi hibrido bat erabiliko da, Grbich-ek proposatu zuen eran (2013:245). CDA “Edukiaren Analisi Foucaaldiarraren” printzipio batzuekin nahastu da.

Critical Discourse Analysis (in Fairclough eta Wodak, 1997:271-280)	“Edukiaren Analisi Foucaldiarra”
Diskurtso jakin bat zehazki aztertzea eta momentu horretan bertan gertatzen ari diren gertaeren harira testuinguratzea	
Kontraesanak eta beste diskurtso zati batzuei egindako aipamen ezkutuak	Arazo sozialak bereziki aztertzea
Norberaren ideología ‘normalizatzeko’ botere politikoa eta legala erabiltzeko bidea	Ezberdintasun historikoak diskurtsoan nola islatu diren ikustea
2. taula. Edukien Analisiaren bi ikuspegi. Grbich-etik moldatua (2013)	

3.3. “There is no view from nowhere” (Nagel, 1986)

CDARI egiten zaion kritikarik nabarmenena metodo hau errealitate jakin bat ebaluatzeko aurreiritzi pertsonalez betetako tresna subjektiboa dela da, eta *de facto*, egia izan liteke metodologia honek “ikerlariaren ikuspegia zein den esaten du[ela] (Widdowson, 2007). Halaber, Nagel-ek (1986) iradoki bezala, guztiz neutrala izatea guztiz ezinezkoa da, ikerlariak bizitzarekiko duen “lerrokatzea” kontutan hartuta. Kasu honetan, euskararen aldeko ekintzailea izateak eta nire ideologia espainiar nazionalisten ideologiaren kontrakoa izateak nire ikuspegiaren eragina izan ahal du. Edonola ere, gizabanako guztiek dute kolore bateko eta besteko eragina beraien pentsakeran eta nire izate anitza aldarrikatu nahiko nuke, nire laginaren tamaina eta aniztasuna azpimarratzearekin batera.

3.4. Zer aztertu dut zehazki?

Lan hau egiterako orduan, honako irizpideak erabili ditut:

Jäger (2001:32-63)	Van Dijk (2000:99)
Arrazoitzeko modua	Lexiko estiloa
Arrazoiketa hori egiteko estrategiak	Koherentzia
Testuen osaketa eta bere logika intrintsekoa	Gaiaren hautaketa
Era batean edo bestean ageri diren inplikazioak eta iradokizunak	Antolakuntza eskematikoa
Sinbolismo kolektiboa edo “figurativeness” delakoa, sinbolismoa, metaforismoa,...	Baliabide erretorikoak
Esapideak, esaera zaharrak, topikoak, hiztegia, estiloa	Egitura sintaktikoak
Eragileak (pertsonek, egitura pronominala)	Proposizio egiturak
Zientziari egindako aipamenak	Zalantzak eta erreparak
2. taula. Analisisirako irizpideak (Jäger, 20001 eta Van Dijk, 2000-etik hartua)	

3.5. Lagina¹⁵

Ikerketa honetarako lagina osatzeko liburuak eta prentsa digitalean aurkitutako materialak erabili ziren, oro har. Guztira, 165 ale ezberdin erabili ziren lan honetarako, ale horien ezaugarriak hainbat taldetan banatu daitezkeen arren.

Ezaugarria						
Kokapen ideologikoa	Fr. aldarrikatzai lea (80)	Framing uzkurra (73)	EAJ-PP-PSE (2)	Anbigua (3)	Denetarik (7)	
Testu mota	Landua (56)	Iritzi-artikulua (23)	Albiste (78)	Elkarrizketa (2)	Biñeta (3)	Txioak (3)
Hizkuntza	Euskara (36)	Gaztelania (123)	Ingelera (6)			

3. taula: lagin honetako testuen ezaugarriak. Iturria: egileak egina.

¹⁵ Laginari buruzko ohar eta balizko hutsune batzuk azaltzen dira 4.3. atalean. Irakurleak eranskinetan du laginari buruzko informazio eta material gehiago.

4. Emaitzak

Hurrengo lerroetan lagina aztertu ondoren behatu ahal izan diren emaitzak plazaratuko dira, aurkitu diren gatazka diskurtsiboak banan-banan azalduz eta laginean aurkitutako adibideekin aurkikuntza horiek argudiatuz.

Dena den, hori egin baino lehen emaitzen azalpen orokor bat egingo da, hurrena datorren edukia hobeto ulertze aldera.

Horrenbestez, esan behar da ikerketa honetan topatutakoak bi alderen arteko etengabeko norgehiagoka adierazten duela; alde horiek, normalean, espainolak eta euskaldunak direlarik. Dena dela, marko teorikoan ikasitakoarekin modu koherentean lerrotzeko, eta jakinda ikusiko ditugun posizionamenduak continuum baten parte direla, euskaldunak eta espainolak baino, askotan framing aldarrikatzaile eta uzkuraren kideei buruz mintzatuko gara. Beraz, euskaldun eta espainiar esaten denean, irudikatu aldarrikatzaile eta uzkurraz mintzo garela.

Edonola ere, egon badaude nazionalismo esparruak (mikro vs makro) eta ideologia esparruak (kontserbadoreak vs aurrerakoiak) partekatzen dituzten alde edo kideen arteko ‘borroka diskurtsiboak’. Honen harira, esan behar da, diskurtsoa dela ideologiari ahotsa ematen dion tresna (Van Dijk, 2000:9), beraz, pentsatzekoa da ideologia guztiz kontrajarriak topatu direla euskararen gatazka honetan. Oso kasu gutxitan topatu dira, hain zuzen ere, alde guztien arteko adostasunak eta horrek pentsarazten digu oso eremu polarizatu batean gaudela.


Bestalde, eta indar politiko eta demografikoan dagoen ezberdintasuna eta gatazka armatuan egon diren azkeneko gertakarien ondorioz, argi dago botere desoreka handi bat dagoela euskararen eta gaztelaniaren alde sutuki azaldu diren horien artean. Irudikatu dezagun gatazka hau soka-tira lehiaketa bat dela, eta hainbat txanda daudela lehia bakoitzeko. Jakina, txanda bakoitzak gai ezberdin bat ordezkatzeko du metafora honetan. Bada, esan behar da ‘uzkurrek’ dutela boterea tiraka hasteko eta ‘aldarrikatzaileek’, ordea, kasurik hoberenean tiraldi horri eutsi diezaioketela, nahiko talde ahula baitira. Hau argi ikusten da euskararen inguruan sortu diren ‘diskurtso’ eta ‘kontzeptu’ berriekin. Adibide bat jartze aldera, inposaketaren diskurtsoa litzateke egokiena, erdaldunek abiatutako ‘kanpaina’ bat baita eta euskaldunek nekez neutralizatu baitezakete mezu indartsu eta sarkor hori. Hala ere, euskaldunak modu xumeagoan egiten dute berdina maila diskurtsiboan, eta horren adibidea litzateke berriki sortu den “kosmopaletoa” hitza¹⁶, hamarkadaz hamarkada euskararen baserritartasuna eta erdaldunen espiritu anitza aldarrikatzen zituen lelo horri aurre egiteko jaio dena.

Behin hau esanda, soka-tirako txanda horiek nolakoak izan diren azalduko da. Jasoago esanda, diskurtso mailan azaldu diren ‘trope’ edo ‘harilkatutako gaiak’ zeintzuk

¹⁶ Feminismoak duen ‘erantzuteko gaitasunari eta sormenari’ begiratuta sortu zen. Informazio gehiagorako, ikus M. Ozaitaren artikulua BAT aldizkariko 97. zenbakian

diren azalduko da, borroka-gai txiki horiek deskribatzen baitute euskararen gatazka hau (gatazkarik egotekotan, jakina) nolakoa den.

4.1. Gatazka diskurtsibo honetan harilkatuta



2. grafikoa: laginean topatutako gaiak eta gai bakoitzeko aipu kopurua

Ezer baino lehen, ikus liteke gai edo diskurtso batzuk besteek baino indar handiagoa dutela. Hori dela eta, “inposaketa”, “exotaldea deshumanizatzea”. “gatazka” eta “datuekin jolasean” bezalako gaiek leku garrantzitsua dute lan honetan.

Edonola ere, aipu kopuruekin soilik ezin liteke askoz gehiago ondorioztatu eta gai hauen artean harremanik ba ote dagoen aztertzea da garrantzitsuen, azterketa horrek erakutsiko baitigu bidea balizko hizkuntza gatazka hau deskribatzerako orduan.

Hau honela, eta ondorengo lerroetan azalduko den bezala, egileak gatazka hau bi galderen erantzunetik sortzen dela ikusi du. Gatazkaren parte diren aldeek galdera horiei emandako erantzunetik abiatuta hasten dira posizionamenduak aldentzen¹⁷.

¹⁷ Inorentzat ulertzeko errazagoa balitz, [hemen](#) ikusi dezakezue emaitzen mapa kontzeptuala

4.1.1. α. Gakoa: “Euskara hizkuntza gatazkatsua da”

Llinoles-ek dio (1972:19) gatazka bat sortzeko nahikoa dela ikuspegi kontrajarri batek sortzen duen ezinikusia, nahiz eta biolentzia ere egon litekeen, egoera muturrenekoan. Gure kasuan, aurkaritza mota denak ikus ditzakegu euskararen gatazka honetan, biolentzia fisikoaren eraginetatik hasita hizkuntza komunitate ezberdinen arteko harreman zalantzazkoan bukatuta.

Azken honen harira, alde batek zein besteak aitortzen du euskara ez dela hizkuntza ‘neutroa’ zentzu horretan, eta adierazten dute euskararen agerpena gizarteko esparru batzuetan gatazkatsua dela. Gaztelania hitz egiteak, ordea, ez du arazorik sortzen, oro har.

ALD.I-A.(1) --Aldalur, 2016¹⁸

“Gatazka sortzen du euskarak, deserosoa da; hala ondorioztatu nuen orain gutxi klasean. [...] Baina bereziki mingarria egiten zait, zapaldua zapaltzaile rolean hain modu zakarrean jartzen dutenean. [...] Une batez elkarri begira geratu ginen nork hitza hartuko, euskarak egoera deserosoak sortzen ditu zenbaitetan.”¹⁹

Kasu honetan, kazetaria ez da gatazka armatuari buruz ari, baizik eta euskarak gizarte mailan dauden arauak apurtzen dituela. Hortaz, euskaraz egitea ekintza markatua da eta aurreikusita ez dauden ondorioak dakartza. Are gehiago, gizarteak oraindik ez du alde zuretik finkatutako jokabiderik zehaztu, eta hori argi ikusten da “Une batez elkarri begira geratu ginen nork hitza hartuko” pasartean. Dena den, aipuan aurrera jarraituz, egileak bere posizionamendua hartzen du (euskalduna) eta gatazka batean kokatuta gaudenez, aipatzen du egiturazko biolentzia jasandakoa dela, “mingarria” baitzaio bere zapaltzaileak zapaldutakoak bezala ikusiak izatea.

Gatazka horren hari horri tiraka eginez, ordea, ikusten da euskararen izaera gatazkatsuak beste dimentsio bat hartzen duela, hau da, euskara ‘euskal gatazka globalaren’ barruan sartzen dela, eta hori dela eta, euskara ‘bando’ jakin baten hizkuntza bihurtzen da, eta gaztelania, berriz, gainontzekoena. Eta ikusita bando jakin horren

¹⁸ Lehenengo hiru hizkiek adierazpenaren framing-a ordezkatzeko dute; hurrengo hiru hizkiek, berriz, adierazpen hori zer nolako iturrietatik eskuratu den; eta zenbakia, aldiz, mota berdineko zenbatgarren aipua den. Horrela, Aldalur-etik (2016) ateratako aipu hau framing aldarrikatzailean kokatzen da, iritzi artikulua batetik atera da eta gisa honetako (aldarrikatzailea + iritzi-artikulua) lehenengo aipua da.

¹⁹ Laranja kolorea adierazpen horretan euskararen normalizazio ‘osoaren’ aurka gertu den aipuari atxikitu zaio, framing uzkurgarriaren parte izan daitekeenari. Framing aldarrikatzaileari, berriz, kolore urdina. Kolore horien aukeraketa balorazio subjektiboak ekidingo zituen koloreak zirelako izan da, gurean ez baitute lotura handirik alde batekin edo bestearekin

ezaugarriak zeintzuk diren, euskara ETAkideen hizkuntza bilakatzen da, terroristen hizkuntza. Hori dela eta, argi dago euskararen aldeko ekimen oro gaitzesgarria izan daitekeela eta horrek zilegitasuna kentzen diola euskararen normalizazioari.

Uzk.LAN.(1)-- (Roca, 2007)

“Frente al criterio racial, el criterio de la delimitación lingüística permite aumentar el número de miembros de la nación vasca sin depender del crecimiento vegetativo de los euskaldunes, puesto que permite asimilar a la población foránea que lo desee. Y tanto ETA como HB han mantenido el criterio de que para ser vasco es suficiente con vivir y trabajar en Euskadi y sentirse vasco.

[...]

En esta circunstancia se revela esencial el papel de la lengua en la transmisión de la ideología, y el control sobre el uso del lenguaje alcanza una dimensión estratégica. La intención es que el aprendizaje de la lengua, junto con el de la historia, predisponga a asumir el programa político nacionalista.

Así entendido, el aprendizaje del euskera es distinto del aprendizaje de otras lenguas, como el inglés o el francés, pues el conocimiento de éstas no implica adscripción ideológica, a lo sumo seducción cultural, pero no política.”

Artikulu akademiko mamitsu honetan ETA/HBk euskarari atxikitzen dioten funtzioa zein den azaltzen da eta hainbat ohar interesgarri erauzi daitezke aipu honetatik. Lehenik eta behin, aipatzen da, euskal herritarren jaiotza-tasa baxua kontuan izanda, euskalduntze prozesua euskal komunitatearen irtenbidea dela talde bezala bizirauteko, eta are gehiago, hedatzeko. Hori gutxi balitz, euskalduntze prozesuari ez zaio integratze balioa ematen, baizik eta asimilatzailea. Horren ondorioz, badirudi euskalduntzen diren erdaldunek beraien jatorrizko izateari uko egiten diotela.

Horretaz gain, euskarak duen funtzio berezi bat azaltzen da doi-doi: euskarak duen funtzio ideologikoa. Erredukzionismoaren aldeko hautua egiten du Rocak, kasu honetan, euskara kosmobisio/ideologia/ikuspegi zehatz batekin lotuz. Hori bai, erredukzionismoaren erabilera mugatua egiten du, ingelera edo frantsesa ikasteak ez baitute horrelako konnotazio ideologikorik. Eta are gehiago, frantsesa eta ingelera ikasteak ez du kideze ideologikorik eskatzen, baizik eta “erakarpen kulturala”, euskarak ez duena, alegia.²⁰ Interesgarria da, halaber, ETA-HB bikoteak proposatzen duten adoktrinatzeko horretan historiaren irakaskuntza ere aipatzea, Espainiaren historia adoktrinatzailerik egongo ez balitz bezala²¹.

²⁰ Hau 4.1.8. gaiarekin lotu daiteke, aurrerago ikusiko den bezala

²¹ Ikus <http://www.abc.es/espana/20140116/rc-wert-defiende-historia-espana-201401161205.html>

Adoktrinatzearen argudiaketa honekin jarraituz, jakina, ikastolek badute zeresana, ondorengo hiru aipu laburretan ikus daitekeen bezala.

UZK.LAN.(2) -- in Esparza Zabalegi, 2006:49

“En las ikastolas se imparten enseñanzas del arte de la guerra” (Martín Villa, 1979)

“La escuela vasca es un objetivo y un instrumento del terror” (El País, 29.3.01)

“Se enseñan los mitos sobre Euskadi y se prepara al futuro etarra para matar sin la menor objeción de conciencia” (Carrascal, 2002)

“En una palabra, son escuelas o fábricas de asesinos” (Campmany, 2003)

Ikusi daitekeen bezala, inortxok ere ez dizkio ikastolari dituen bertuteetako batzuk aitoritzen, esaterako, heziketa-zentro homologatu bat izatea, Espainiako Hezkuntza Ministerioak onartu izana, hiru hizkuntza lantzeko gaitasuna, gizartetik abiatutako ekimen bat izatea, eduki ‘normalak’ ere irakastea,... Horren orde, ikastolak hiltzaileak sortzeko lantegiak bilakatzen dira, toki ilunak beraz, “kontzientziarik gabekoak” eta Euskadiri (ez “Euskal Herria”, esanguratsua) buruzko mitoak irakasten dira. Zergatik bihurtu diren ikastolak horrelakoak? Bada, terrorearen, hau da, ETAren helburua bilakatu direlako eta ETAk bere nahietara bideratu dituelako.

Ideologia honen beste esparruan, beraz, ezker abertzalea dago, zeinek euskarari atxikitzen zaion izaera adoktrinatzailerik ukatzen duen (ez aipatuz) eta euskararen gutxitzea euskal gatazkaren barruan kokatzen duen. Hau da, ‘euskal gatazka egon denez, guretzat (ezker abertzalearentzat) Euskal Herriaren zapalkuntza dena, euskara gaur egun hizkuntza gutxitua izatea horren ondorioa da. Beraz, justizia soziala nahiko bagenu, merezi dugun bezala, euskara guztiz normalizatu beharko litzateke’.

UZK.ALB.(1) -- (Naiz, 2012)

«Euskararen erreparazioa funtsezko osagaia da gatazkaren konponbide integralerako. [...] Euskal Herria nazio subjektu gisa ukatzeak, euskararen normalizazioa blokeatzeak eta asimilazio (sic) prozesua jarraitzeak erakusten dute euskara estatu-arazoa dela Espainia eta Frantziarentzat», nabarmendu dute.”

Ezker abertzaleak prentsaurreko batean egindako aipu honetan, esan liteke euskal gatazka zer den beraiek erabakitzen dutela, eta konponbidea ere beraiek dutela esku artean. Gainera, Espainia eta Frantziarentzat euskara “estatu-arazoa dela” esaten dute, baina horrela pentsatuko ote dute agintariak? Plangintza berezitu bat al dago euskara deuseztatzeko? Eta bestalde, nola jakin Euskal Herria ukatzen dutenik eta asimilatzen

jarraitzen ote dutenik? Erantzun zaileko galderak dira, frogak aurkitzea konplexua delako eta horrelako aurpegiratzeek ibilbide labur eta arriskutsua abiatzen dutelako, baina ezker abertzaleak gatazka hau (bere ikuspegiaren arabera) zertan datzan ulertzen laguntzen digu.

Baina noski, definitze honek traba handi bat dauka maila diskurtsiboan, mezu honen eraginkortasuna guztiz oztopatzen duena: “zer da euskal gatazka?”. Batzuentzat gatazka hau ez da existitu eta ez da existituko, izan ere, ETaren ankerkeria, zapalkuntza, terrorismoa, “*la sinrazón*”, besterik ez baita izan “euskal gatazka”²². Txanponaren beste aldean, euskal gatazka “Espainiarren (eta frantsesen) konkista eta zapalkuntza” dela legoke.

Euskal gatazkarik ez badago, horrek, batik bat, ezker abertzalearen tesiak indargabetzen ditu, eta euskarari dagokionez, demostratzen du euskara ez dela inolako arrazoiaren ondorioz bihurtu hizkuntza gutxitu, baizik eta modu naturalean, “darwinismo sozialaren” postulatuak jarraituz²³.

Laburbilduz, beraz, esan liteke euskara ere gatazka zabalago horren ‘bandoen’ bereizgarria bihurtu dela, alde batek zein besteak gatazka horren barruan kokatzen baitute, norberak bere erara.

4.1.1.1. Kanpo-taldearen deshumanizazioa

Kontzeptu hau gatazken konponketan behin eta berriro azaltzen den arazoetako bat da, izan ere, hainbat gertaera direla medio, eta normalean, bi aldeen arteko ezinikusi edo liskar baten ondorioz, alde batek ez dizkio bere eskubide eta ezaugarriak atxikitzen beste taldeari, beraien ustez kanpo-talde hori (hots, euskaldunak ala espainolak) beraiek baino okerragoa delako.

Galtung-en hiruki horretan, ‘bestearenganako’ mespretxu hau litzateke biolentziaren muina, edo beste era batera esanda, biolentzia oro ahalbidetzen duena.

Gure laginera etorritik, ikusten da norbaitek hizkuntza-politika, hizkuntza-ideologiak edota hiztunen jokabideak gaitzat dituen adierazpenak egitean, sarri balorazio negatibo eta gaitzesgarri bat egiten dela. Badirudi, gainera, balorazio hori egiterakoan testuinguru zabalago batean dauden aldagaiek eragiten dutela, zeren eta normalean beste taldea modu bidegabean deskribatuko duen mezu gordinak igortzen dira.

Etengabekoa izan da gai diskurtsibo honen agerpena lan honetan zehar, eta hainbat zertzelada eskaintzen dizkiguten aipua gehituko dira ondorengo lerroetan.

²² http://politica.elpais.com/politica/2015/03/11/actualidad/1426103143_149437.html

²³ Ikus Moreno Cabrera (2009:18-22)

UZK.I-A.(1) -- (de Diego 2003 in España, 2003:29)

“Porque resulta obvio que, si algún día el plan Ibarretxe o algo similar saliera adelante, los principios de los que parte el nacionalismo llevarían a la persecución del castellano u del castellanoparlante en la Administración, en la calle y en la intimidad de los hogares.”

Esaldi honetan hainbat gauza behatu daitezke. Hasteko, Ibarretxe Plana ez da mehatxu bakarra, nazionalismoak antzeko egitasmo gehiago egingo baititu, bere hitzetan. Halaber, adierazgarria da nola definitzen duen nazionalismoa, esanez nazionalismoaren muinean dagoela jazarpena. Are gehiago, pentsa nolako jazarpen mota nahi duten nazionalistek, ezen etxeraino ere iritsiko liratekeen bere ‘hatzaparrak’.

ALD.ELK.(1) -- (A. Campos-i elkarrizketa, in Argia, 1994)

“Nik daukadan informazioaren arabera, oso baldintza onak eman zaizkie funtzionari horiei euskara menpera dezaten: ordu pila libre izanik, soldata osoa kobratuz, eta abar. Galdetu beharko litzateke erraztasun horiek nola baliatu dituzten. Beste zenbait arlotan jende asko ari da esfortzu ikaragarriak egiten, eta oso gustura hartuko lituzkete. Finean, denon dirua erabiltzen ari dira. Euskalduntze plangintza zalantzan jarri eta egokia ez dela aipatu izan da. Ni erabat ados nago eraman den bidearekin. Ez dakit onena izango den, baina askotan hemen onena onaren etsai izan daiteke. Horrelako gertakizunen aurrean, errua beste norbaiti botatzea gustatzen zaigu”

Aipu honen egileak aitortzen du informazio ona duela edota ezagutza gehiago falta zaion arren, informazio horrek hainbat ondorioetara eramaten duela. Gainera, galdera erretoriko batekin sotilki aipatzen du euskaraz ikasten saiatzen ari diren erdaldun horiek ez dutela aukera ondo baliatzen. Bukatzeko, ez da saiatzen aukera onena zein den esaten eta erdaldunei leporatzen die irtenbide onen lurperatzailea izatea.

UZK.I-A.(2) -- (Ussía, 1991)

“Tengo en mis manos un folleto espectacular. Lo han editado los bestias de Herri Batasuna y dice lo que se espera de un folleto editado por bestias. [...] y está escrito en euskera y castellano. Bueno, es un decir, sobre todo lo que se refiere al vascuence.

[...]

El contenido del panfleto es singularmente repugnante, pero su continente es divertidísimo. Lo siento por el maravilloso idioma de los vascos que recibe de los llamados “abertzales” los mismos disparos en la nuca que los ciudadanos inocentes. Animalitos...”

Pasarte mota hau salbuespena izan da ikerketa honen laginean, baina ezin hobeto deskribatzen du bai zer den ‘bestea deshumanizatzea’ (“*bestias*”, “*singularmente repugnante*”, “*disparos en la nuca*”,...), bai zer den euskara ETArekin lotzea, baita zer den euskararen aurkako zeharkako adierazpenak egitea (“*es un decir*”, “*Lo siento por el maravilloso idioma de los vascos*”).

ALD.LAN.(1) -- (Torrealdai, 2001:9)

“Si algo queda claro tras la lectura de estas páginas es que esta política lingüística no es patrimonio en exclusiva de ninguna ideología, de ninguna formación política, de ninguna época en concreto. Recorre toda la historia moderna de España. Ni exclusiva ni coyuntural, es una constante que atraviesa siglos e ideologías.

Este monolingüismo nacionalista español se manifiesta con frecuencia de manera tremendamente intransigente y visceral”

Ez dago salbuespenik, beraz, gure Hegoaldean. Espainiar denak, edo behintzat ideologia elebakar hau, alde guztiek partekatzen duten pentsamolde bat da, denboran oso atzera egiten duena. Marko teorikoan kontrakoa ikusi dugun arren, ideologia hau ezin da aldatu eta “*tremendamente*” erasokorra da.

Jakina, norbaitek maila dialektikoan erasotzen zaituenean, bi erantzun eman ditzakezu. Alde batetik, ezeztatu leporatu dizuten ezaugarri hori (adib. “ni ez naiz X”) edo bestalde, zure ‘arerioei’ beste ezaugarri negatibo(ago) batzuk atxikiaz.

4.1.1.1.1. Kosmopaletok, paternalistak eta beste hainbat tribu

Oraindik ere badago euskararen aurka modu zuzen edo zeharkakoan hitz egiten duenik, eta oro har, erabiltzen duten hizkuntza oso sutila edo paternalista da. Honen arrazoia izan daiteke, gaur egun, euskararen aurka gordin hitz egiteak dakarren kostua. Hala ere, euskararen inguruan bigarren intentzio batekin edo euskara hizkuntza beraren inguruko kritika leunak egitearen helburua bat eta bakarra da: euskara gutxiestea. Hau, jakina, exotaldea deshumanizatzeko beste modu bat litzateke, exo-talde horren hizkuntzaren aurka eginez.

UZK.LAN.(3) -- (Fernando Buesa in Azurmendi, 1992:5)

“El euskera es una lengua que sirve para andar por casa y sólo entre ese 30% que es euskaldun”

“[S]irve para andar por casa” dela esanez, euskarak duen balio eskasa aipatzen da, era erdi-ezkutuan. Hori gutxi balitz, euskararen balio eskasa are gehiago nabarmentzeko aipatzen da euskara bakarrik etheen %30etan mintzo dela, beraz, “etxerako bakarrik balio du euskarak eta gutxi balitz, oso etxe gutxitan hitz egiten da euskara”.

Lehia honen *continuum* honen beste aldean ditugu “kosmopaletoak” bezalako irainak sortu dituzten gizabanako eta erakundeak. Horrela, kosmopolita itxurapean euskararen aurkako (ustezko) ekintzak egin edo adierazpenak egin dituztenei kosmopaleto deitzen hasi gataizkie Euskal Herrian, eta hau ere kanpo-taldearen deshumanizazioa litzateke.

ALD.TXI.(1) – (sustatu.eus, 2016)



3. Irudia: Kosmopaletoak gaia azaltzen duen adibideetako bat.

Ekimen pribatuek oro har gaztelaniarako joera dutela ahaztuta, txiolari honek guztiz salatzen du euskarari keinu egin izana “bokata” jarriaz (askotan euskaldunok horrela esaten dugun arren) eta kosmopolita izaera horrekin ingelera lotu izana.

4.1.1.2. “Haritz eroriari orok egur!”

Galtung-en esana da (1999:80) gatazken konponketan erreparazioa bera negozio borobila dela. Berak hertsiki negozio ekonomikoa zuen buruan, baina beste irakurketa bat eginez, aipu horren adiera etekin politikoetara zabal liteke. Horrela, pentsatzekoa da

gatazka armatu-politikoaren irabazleek (PP-PSOE, eta neurri txikiago batean, EAJ) orain dutela aukera galtzailearengandik (Ezker abertzalea-EH Bildu, eta neurri txikiago batean, EAJ) etekin politiko eta ideologikoa ateratzeko. Hau azaltzen duten hainbat gertakari eta adibide daude, baina euskararen arlora etorri, eta ikusita EH Bildu dela historikoki euskararen normalizazio aurreratuago bat aldarrikatu duen alderdia (Goirigolzarri, 2015:288), beraien hizkuntza politika, alderdiaren ezaugarriak (“terroristak”²⁴) eta hizkuntza bera lotuaz euskararen biziberritzea zalantzan jartzen da eta etengabekoak dira gaitzespen oharrek. Horren harira, pentsatzekoa da ‘*radical*’ hitza agertzen den bakoitzean, inplizituki ezker abertzalearen muturrekotasunarekin lotu nahi direla hizkuntza politika eta aldarrikapenak.

UZK.LAN.(4) – (López Basaguren, 2008)

“Debe desterrarse el voluntarismo sobre el que se ha asentado la política lingüística. Entre otras muchas razones, porque ha equivocado su objetivo, centrándolo, obsesivamente, en la expansión de la lengua en lugar de situarlo en el fortalecimiento de la comunidad lingüística. Se ha creído erróneamente que la radical inversión de la planta lingüística era posible en una sociedad como la nuestra; y, además, de forma acelerada.”

‘Erbesteratu’ aditzarekin hasten du aipua, hizkuntza politika aldarazteko aditz esanguratsua. Ondoren, aditu honek azaltzen du euskararen biziberritzea euskaldunon komunitatearen artikulatzean oinarritu behar zela, Euskal Herriaren (EAE, hobeto esanda) euskalduntzea baztertuz. Horrekin argi uzten du euskararen biziberritzeak mugak beharko lituzkeela, ezin dela hain eskala handian egin. Ideia hori hurrengo esaldian azpimarratzen du, esanez “gurea bezalako gizarte batean” ezinezkoa zela biziberritze eredu hori, eta are gutxiago hain modu azkarrean.

Edonola ere, ‘*radical*’ hitza genuen aipagai eta hori azkenengo esaldian aipatzen du, argudiatuz euskararen alde (ulertzeko zaila den “*planta lingüística*” jarritz) egindako inbertsioak ‘erradikalak’ izan direla, kudeaketa erradikala beraz, edo erradikalek hauspotutakoa, erradikalak (HB?) agintean egon ez arren.

Dena den, azken “*radical inversión*” horrek ziurrenik beste irakurketa (zehatzago) bat du, eta aipuaren egilearen iritziaren faltan, ezin jakin anbiguetatez idatzi zituen lerrook. Irakurketa honen arabera, “*radical inversión*” horrekin hizkuntzen egoeraren guztizko iraulketa arbuiatzen da, hau da, gaztelaniak duen tokia euskarari ematea, eta alderantziz.

²⁴ ikus 4.1.4.

UZK.ALB.(2) -- (Alonso, 2016)

“Desde su llegada al Palacio foral, el Gobierno de PNV y PSE en Gipuzkoa se ha empeñado en acabar con toda la herencia del anterior Ejecutivo de EH Bildu. La estrategia es clara: aplicar políticas radicalmente opuestas tanto de puertas para afuera como a nivel interno. En este escenario, la coalición abertzale persigue especialmente que su huella no se borre en un aspecto fundamental, el euskera, ámbito que instrumentalizó desde el Ejecutivo foral con una radical política lingüística.

EH Bildu se está sirviendo del Parlamento territorial para presionar al diputado general, Markel Olano, con el que consideran el flanco débil de este gobierno de coalición.”

Aipua luze xamarra den arren, ‘*radical*’ hitza bi aldiz aipatzen da eta bereziki adierazgarria da lehenengo lerroaldearen amaieran esaten duena, hau da, “EH Bilduk euskararen gaia instrumentalizatu izana Foru Aldundia kudeatzen ari zenean, muturreko hizkuntza politika batekin”. Jakin beharko litzateke zer den muturreko hizkuntza politika bat, baina esanguratsua da, bigarren lerroaldean jartzen duena hizpide hartuta, irakurtzea euskara dela EH Bilduren baliabidea Foru Aldundia higitzeko.

Zentzu honetan, EAJ-k, testuinguru honen presiopean eta EH Bildutik urruntzeko, mozio ugari sinatu eta hainbat adierazpen publiko egin ditu euskararen inposaketaren aurka²⁵.

UZK.ALB.(3) -- (Urkizu, 2013)

“Euskara eta gaztelania aukeratzeko “benetako askatasuna” defendatu du Eusko Legebiltzarrak [...]

EAJk, PSEk, PPK eta UPDk aldeko botoa eman dute, eta EH Bilduk, kontrakoa.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio hezkuntza sisteman hizkuntza aukeratzeko “benetako askatasuna” berma dezala, eta horrek ez dezala galarazi ikasleak euskara eta gaztelaniaren ezagutza “nahikoa” izatea derrigorrezko hezkuntza amaitzen duenean.

“[Benetako askatasuna](#)” zer den jakitea zaila litzateke, baina badirudi ados daudela kontzeptu horretan alderdi politiko guztiak, EH Bildu izan ezik. Bestalde, aipagarria da Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari zerbait eskatzea, sinatzaileetako bat agintean dagoenean, askatasuna “BERMATU” eta bi hizkuntzen ezagutza nahikoa “GALARAZI”

²⁵ Ikus [4.1.2.2.](#) eta [4.1.1.4.](#) atalak, hurrenez hurren, harreman estua baitute aurkikuntza honekin

ez dezan. Ikusi daitekeenez, boterearekin zerikusia duten [aditzak](#) erabili dira, indarraren erabilera dagoela ikusaraziz.

Baina ahal duen heinean ezker abertzaleak ere ekimena agertzen du EAJ-ren aurka egiteko eta euskararen alde behar den guztia egiten ez duela aurpegiratzeko, ondorengo aipuan ikusi bezalaxe:

ALD.ALB.(1) -- ([Zarate, 2015](#))

“EUSKALDUNAK ETA EUSKARA “GALTZAILE” IZANGO DIREN BELDUR DA EH BILDU

Euskarak aurrerantzean udalean izango duen lekuarekin eta trataerarekin ere kezkatuta daudela esan dute koalizio subiranistaren ordezkariak, “atzerapausuak izango ditu euskarak merezi eta behar duen trataerarekin”. Horren adierazlea da EH Bilduren hitzetan EAJko Noemi Arberas liberatu izana: “Gizarte Zerbitzuetako departamenduko ardura izango du Arberasek eta euskaraz hitz egiteko eta ulertzeko gaitasunik ez dauka.

Beste behin ere euskaldunak izango gara kaltetuak eta zerbitzuaren probretzea pairatuko dugunak”.

Lezoko udalak euskaraz funtzionatzeko konpromezua orain urte asko hartu zuela esan du EH Bilduk, “eta azken urteetan horren guztiaren fruituak ikusi ditugu, euskara delarik udalaren hizkuntza. Baina zein izango da hemendik aurrera lan hizkuntza, zein hizkuntzetan egingo dira batzorde ezberdinak, tokiko gobernu batzordeak edota osko bilkurak?”

Galtzaile hitzarekin hasi izana bera garrantzitsua da, horrek esan nahi baitu beste norbaitek irabazi behar duela (erdaldunak) eta lehia bat dagoela. Beraz, EAJk EH Bilduren eskuetan zegoen udalerri euskaldun batean kudeaketak euskararen “atzerapausoa” ekar lezake eta panorama beltza aurreikusten diote koalizioko bozeramaileek legegintzaldi horri.

Halaber, [beherago](#) luze eta zabal jorratuko den “inposizio politika” ere sartzen da jokoan eta beste behin, imposizioa leporatzen zaio alde erradikalari, hau da, ezker abertzaleari. Honek, bien bitartean, bere aldarrikapenen garrantzia azpimarratzen du euskara biziberritu nahi badugu.

DEN.ALB.(1) -- (Urkizu, 2014)

“Legebiltzarrak hizkuntza arloko «inposizio politika» gaitzetsi du [...]Euskarari buruzko eztabaida monografikoa egin dute Eusko Legebiltzarreko Euskara Batzordean, EH Bilduk hala eskatuta. Patxi Baztarrikaren ustez, ezin da esan euskara desagertzeko zorian dagoenik.

[...]

EAJk eta PSE-EEK aurkeztutako ebazpenaren arabera, berme horrek Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate soziolinguistiko ezberdinen «errespetuan» egin behar da, «inork hizkuntzagatik inolako diskriminaziorik jasan ez dezan». Bi talde horiek onartutako beste ebazpen batean, legebiltzarrak gaitzetsi egin ditu hizkuntza arloko «inposizio politikak».

[...]

Isasik, azkeneko datuak aztertu eta gero, kritikatu zuen Jaurilaritzak ez dituela zaindu arnaguneak eta udalerri euskaldunak. «Politika atzerakoia izan da arnaguneetan». EAJko legebiltzarkide Garbiñe Mendizabalek, aldiz, kontrakoa adierazi zuen: «Jaurilaritzaren hizkuntza politika aurrerakoia eta barneratzailea da; ez da baztertzaila».

[...]

EH Bilduren ustez, eztabaidak agerian utzi zuen PP eta PSE-EE «oso eroso» daudela EAJren hizkuntza politikarekin.”

Aipu interesgarria da honako hau, framing uzkuraren parte direnek “errespetua”, “diskriminaziorik eza”, “gaitzetsi”, “inposizio politika”, “aurrerakoia”, “barneratzailea”, “baztertzaila” eta antzeko hitzak aipatzen direlako, berriro ere, kutsu jakin bat duten esapideak²⁶.

Beste aldean, Isasik arnaguneen gaia ateratzen du, non hizkuntza politika aurreratuago bat eraman behar den arnagune izaten jarraitzeko. Antza denez, EAJ-k ez du ‘adorerik’ pausu hori emateko. Gainera, EH Bilduk EAJ framing uzkuraren zakuan sartzen du bete-betean, bestela PP eta PSE ez liratekeelako hain eroso egongo beste hizkuntza politika batekin.

Arnaguneen gaia sarri azaldu da ikerketa honetako laginean, eta badirudi hor ikuspegi kontrajarri bat dagoela, izan ere, sektore oso murrizt batek defendatzen du arnaguneetan egin beharreko politika berezitua. Politika berezitu horri baztertzaila deitzen zaio maiz, eta euskararen arnaguneak ez defendatzeak izugarritzko kontrako adierazpenak sortzen ditu.

²⁶ Lagineko “[defendatu](#)” gaian ikus daitekeen moduan

ALD.I-A.(2) -- (Bereziartua, 2016)

“Ez dago modurik: egunero erabiltzen dudana hizkuntza indioekin, tribuekin eta bunga-bungarekin lotzen duten mezuak agertzen zaizkit etengabe eta ezin nire TLtik atera, izan ere, jarraitzen dudana jendeak egiten du debaldeko publizitate hori —pentsatu nahi baitut inork ez diela pagatzen horretarako—. Koldo Martinez Geroa Baiko parlamentariak martxoaren 12an bidalitako txio hau, adibidez, euskaldunak gehiengoaren diren herri bati «erreserba» deitzen. Edo Imanol Galfarsororen artikulua hau non, «euskal kulturaren munduko fantasia indigenista-komunitaristak» kritikatzeko diren, «tribugintza» eta beste palabro batzuen artean. Berdin du baskista, nazionalista, independentista edo post-marxista, hemen kristo guztia da edozer euskaltzalea baino lehen, modernoagoa eta, zer esanik ez, listoagoa geratzen delako.”

Lehenago aipatu den “[kosmopaletok](#)” eta “[euskara inplizituki estigmatizatze](#)” gaiak hainbat aldiz eta modutan ikutzeaz gain, Bereziartuak argi eta garbi azaltzen du ezin direla horrenbesteko muga jarri euskararen aldeko biziberritzeari, bai hizkuntza politikaren arloan (arnasguneak, adibidez) eta baita hizkuntzaren aldeko jarrera eta diskurtsoan. Aipatzekoa da egileak erabiltzen duen hizkera zuzen eta deitoratzailea eta, esaterako, euskararen aurkako kanpaina ordaindu bat dagoela iradoki izana.

ALD.MAR.(1) -- Iturria: Urmeneta, 2016 in Pakito Ganbelai, 2016.



4.irudia: “Porlan erdalduna” biñeta.

Ez dira gisa honetako hainbeste froga aurkitu, baina horrelako biñeta batek informazio anitz ematen digu. Etsaia, kamioiko koloreetan islatzen den Espainia eta haren dirua²⁷ dira. Haien alde daude “promotoreak”, eta haien diru-gosearekin batera “diputatu gehienak”, beraz, Gobernuaren parte diren Izquierda-Ezkerra, Podemos, eta batik bat, Geroa Bai. Halaber, aipatzen du Galesko Gobernuak (laboristak, beraz, ingeles nazionalistak) arnaguneak babesteko Aroztegia²⁸ bezalako lan erraldoiak oztopatu izan dituztela.

Gaitik apur bat urruntzea den arren, esan behar da framing uzcurraren adierazpenek ez dutela soilik ezker abertzalea gehiago ahultzea helburu, baizik eta beraien “hitz inozoekin” euskararen egoera edo Euskal Herria bera are gehiago ahultzen saiatzen direla batzuk, [4.1.3.2.](#) atalean ikusiko den bezala.

UZK.LAN.(5) -- (Herrerias, 2006:102)

“(Euskararen egoerari dagokionez) Bizkaia está más cerca de Álava que de Gipuzkoa”

Esaldi soil eta zuria izan liteke honako hau, baina kontutan hartuta egile honek Estatu Espainiarreko hizkuntza politika “guztien” ebaluazio sakon bat egin gura zuela, adierazgarria da Bizkaia (euskarazko forma ofizialean jarria) Álavarekin lotu izana, hau da, EAEn euskalduntasuna kolokan jarri zaion lurralde bakarra. Gipuzkoa, hau ere, euskarazko forma ofizialean jarria, antza, oso urruti dago beste bietatik eta horrenbestez, euskaldun peto-petoa den lurralde bakarra dago estatuan.

Euskararen egoera eta zilegitasuna gutxiestea hizpide denez, ikerketa honetan zehar izan dira euskara [hizkuntza artifiziala](#) dela esan duten eragileak. Badirudi hau ere beste modu bat dela hizkuntzaren aurka beste era batean egiteko.

4.1.1.3. Gatazka egoera batean lidergoa eskuratu nahiean

Askotan agertu izan den beste gai bat norberaren auto-konplazentzia edota lidergotzarako nahia²⁹ izan da. Honen arabera, badirudi talde ideologiko guztiek argi dutela beraien jarduna dela euskara biziberritzeko orduan hoberena. Honen ondorioz,

²⁷ Fermin Muguruza eta Selektah Kolektiboaren [abesti honek](#) ezin baino hobeto azaltzen du “diru espainolaren” afera, baina bere azterketak Sakontze Egitasmo baterako lana emango luke

²⁸ http://www.berria.eus/paperekoa/1856/002/001/2016-03-08/aroztegiko_planak_eragin_larria_eta_kritikoa_luke_euskarari_dagokionez.htm

²⁹ Lagineko “Gu hoberenak” eta “Ni ez naiz hori” gaiak, hurrenez hurren.

norberaren ekintzak txalotu eta besteenak, ezkutuan edo zeharka bada ere, gutxietsi egiten dira.

Hala ere, ideologia espainiarraren (edo uzkuraren) artean beste ezaugarri bat gehitzen zaio zurikeria honi: euskararen biziberritzeaz gain, erdara eta erdaldunak babesteko duten konpromezu irmoa. Hori ikus liteke, adibidez, PSEren aldarrikapenetan, zeinek bere burua EAJ eta EH Bilduren gehiegikerien eta PPren utzikariaren artean kokatzen duen³⁰.

Era berean, gatazka batean norberaren posizioak asko gogortzen dira eta talde ezberdinen arteko adostasuna zaila izaten da oso. Hori dela eta, eta [2.2. atalean](#) jarritako euskal alderdi politiko nagusien ezaugarriak kontutan izanda, mikro eta makro, eta aurrerakoi eta kontserbadore taldeetako kideak [euren artean mokoka](#) egoten dira etengabe.

Hori lagineko “Ni ez naiz hori”, “Gu hoberenak” eta “Zuek errudun” ataletan ikusi daiteke, baina esan beharra dago salbuespen batzuk ere egon direla, non alderdi politiko batzuk ados agertu diren, esaterako, Nafarroako hizkuntzen legea aldatzerakoan³¹ eta Urkijoren helegite zerrenda luzea salatzeko³². Honen adibide bat duzue hurrengo hau:

ALD.I-A.(3)-- [\(EH Bildu, 2016\)](#)

EH Bilduk eta EAJk adostasuna bilatu dute, Gobernuaren delegatuak euskaraz idatzitako akten auzian duen jokabidea salatzeko. Bi taldeek erdibideko proposamena onartu dute udalerrri euskaldunei babesa emateko.

Azpitarratzekoa da, adibidez, bi alderdien arteko adostasuna zein zaila den, izan ere, “adostasuna bilatu dute” eta “Bi taldeek erdibideko proposamena onartu dute” esanez bien arteko ezberdintasunak handiak direla ematen da aditzera.

[4.1.2. β gako: Zer nolako herrialdea irudikatzen duzu?](#)

Hau litzateke euskararen gatazka hau definitzen duen bigarren galdera, alde guztiek ikuspegi ezberdin kontrajarriak dituztenez hainbat alorretan talka egiten baitute.

Honen harira, Martinez de Luna (2013:61) eta Goirigolzarrik (2015:474) aurkitua izan da bi aldeek arteko ezberdintasunen sustraian nazio/identitate ikuspegi bakar kontrajarria dagoela, hau da, lehenengoak “txanpon beraren ifrentzia” deitzen ziona.

³⁰ <http://www.europapress.es/euskadi/noticia-pse-alava-dice-euskera-politicas-linguisticas-no-necesitan-tensiones-pp-bildu-consenso-20150425105506.html>

³¹ PSN eta Bildu elkartu ziren, besteak beste

³² http://www.berria.eus/albisteak/120325/urkijoren_beste_salaketa_bat_ueman_sartzeagatik_salatu_du_ea.htm

Hots, euskaldun batzuk euskara hizkuntza nazional bakarra dela aldarrikatzen dute, eta horrek, ezinbestean, Espainiako hizkuntza bakarra gaztelania izan beharko litzatekeela pentsatzen dutenekin talka ekidinezinean jartzen ditu bi aldeak.

Gorago aipatu bezala, badira saiakerak “[Nazio bat, hizkuntza bat](#)” eredutik alde egiteko eta hizkuntza guztiak errespetatu, babestu eta euskararen berezitasuna aitortuko duen paradigma (framing) berri bat sortzeko, baina lan honetan zehar, behintzat, kontrakoa ikusi da nabarmen, beste behin ere gatazkatxo bat sortu duena, beste gatazka handiago baten barruan.

UZK.LAN.(6) -- (Zarauzko osoko bilkuran jasoa, Torrealдай, 2001:220)

“Aquí hasta que todos no hablemos castellano no habrá verdadera paz”

Hau irudikatuko lukeen adibidea honako hau litzateke, non bakea hizkuntzarekin lotzen den, eta zehatzago esanda, bakea egon dadin Euskal Herria elebakar erdalduna baldintza muzin ezinarekin. “*Verdadera paz*” esanda, Zarauzko udal batzarrean esaldi hori bota zuen gizabanako horrek iradokitzen du bake prozesuak egongo direla, politika eta aldarrikapen nazional kontrajarriak gizarte orekatuago bat bilatzen saiatuko direla, baina benetan bakea ekarriko duena euskararen desagerpena eta gaztelaniaren nagusitasuna izango dela, zalantzarik gabe.

Baztarrikak Europako Eskualdeetako Hizkuntzen Gutuna jorratzen zuen liburu batean egin zuen ondorengo esaldia, non Espainiaren elebakartasuna deitoratzen duen:

ALD.LAN.(2) -- (Baztarrika, 2002:152)

“The Spanish State is multilingual, but its own central institutions still carry on as if it were monolingual”

Oraingoan, Estatu Espainiarrarena baino gehiago, lurraldearen aniztasuna egon badagoela azaltzen du Baztarrikak, baina gobernu zentralari leporatzen dio elebakarra izango balitz bezala jokatzeari. Datuei begiratuta eta inplementazio praktikoari so egin gabe, ordea, esan beharra dago Eskualdeko Hizkuntzen Euro-Itunean Espainiar Estatuak babes-neurri gehienak sinatu zituela (eta estatu eskuzabalenetarikoa izan zela, gainera, *de jure*) eta erkidegoek duten autonomia mailak hainbat aukera ematen diela lehenengoei hizkuntza politika propioa garatzeko.

ALD.IAN.(3) -- (ETA, 1962 in Roca, 2007:9)

“ETA exige para Euskadi la proclamación del euskera como única lengua nacional. Ella debe volver a ser la lengua de todos los vascos. Su primacía y carácter oficial dentro de Euskadi serán totales, sin perjuicio de la instauración de un régimen provisional trilingüe, habida cuenta la realidad lingüística del presente.”

Aipu honen argitan, ETAren eskakizun bat da euskara gure hizkuntza nazional bakarra BERRIRO izatea. Gainera, etorkizuneko Euskal Herriko erregimena horrela diseinatzen du: nagusitasun eta ofizialtasuna osoa (“*totales*”) eta elebakartasunerantzko progresibitatea.

“Nazio bat, hizkuntza bat” ikuspegia duen edonork, den aldekoa dela, derrigor izango du eguneroko gaietan sortzen diren ‘arazoez’ uste irmo bat. Horrela, batzuek pentsatuko dute “Estatua onbera dela hizkuntza gutxituekin” eta, besteez, aldiz, “Estatuak erasotzen gaituela”, [laginean](#) ikusi bezala. Bestalde, [arnasguneen, hizkuntza-irizpideen eta euskarak jokatu beharreko paperean](#) ere sakoneko desadostasunak ikusi daitezke.

4.1.2.1. Euskara hizkuntza gutxitua al da? Merezi du biziberritzeak? Linguizidiorik egon zen?

Hain zuzen ere, euskarak euskal gizartean merezi duen tokian ez dago erabateko adostasunik, eta ezberdintasun hauek azaltzeko lagungarria egingo zaigu atal honen izenburua.

Hiru gai/galdera hauek, beraz, guztiz lotuta daude eta froga gehiago eskaintzen dizkigute esku-artean daukagun balizko gatazka hau ezagutzeko.

Euskararen estatusaren kinka honetan, zehazki hainbat dilema edo galdera-gako sartzen dira jokoan, bereziki Kloss-ek (1977, in May, 2011:266) aipatu zituen hizkuntzen erregimenen ingurukoak. Bere esanetan, hizkuntza bati eskaini ahal zaion eskubide-babes horretan hiru maila daude, bakoitza bere intentsitate eta eskalarekin. Horrela, “babesik ez”, “tolerantzia” eta “sustapena” daude.

Azpi-atal honetan kokatuko genuke, beraz, euskarak merezi duen babes eta biziberritze-mailak sortzen dituen eztabaidak.

ALD.ALB.(2) -- (eitb.eus, 2015)

“Bakartxo Ruiz EH Bilduko bozeramailearen esanetan, etzi ospatuko den **Euskararen Nazioarteko Eguna**³³ "ospakizun eta aldarrikapen eguna" izango da, baina euskara "bizirik" dagoen arren, "**osasun onetik urrun**" dagoela ohartarazi du.”

Azkenengo hamarkadetan euskararen bilakaerak hoberanzko aldaketa izugarria jasan duen arren, “Euskararen Egun” gazi-gozoa izango da, euskara gaixorik dagoelako, are gehiago, “osasun onetik urrun”. Milaka hizkuntza daude euskara baino egoera hobean, baina ezkortasuna ageria da. Gainera, gaixorik dagoenarekin zer egin behar da? Hala edo nola sendatu.

UZK.ELK.(1) -- ([Batzarreko J. Eceolazaren hitzak in Letona](#), 2016)

“Euskara eta euskaldunen eskubide eta zabalkundeari begiratu behar diogu, baina garrantzitsua da nafar bakarrak ere ez hartzea eraso gisa, eta horretarako kudeaketa inteligentea behar da.”

Sektore euskaltzalekoa da Eceolaza, baina aipu honetan aholkatzen den hizkuntza politikak beharko lukeen ezaugarri nagusiak ez du, derrigorrez, euskararen normalkuntza erdigunean jartzen, garrantzia handiagoa aitortzen baitzaio erdaldunek eman diezaioketen erantzunari.

Jakina, dilema honetan berebiziko garrantzia izango du norbanako/talde/alderdiek hizkuntza gutxitu baten, eta kasu honetan, bizi diren lurralde edo herrialdeko hizkuntza gutxituaren biziberritzeari aitortzen dioten lehentasuna. Hau honela, argi ikusten da denak ez dutela berdin pentsatzen eta euskararen biziberritze/normalkuntzak babes ezberdina duela espekto ideologikoan, Goirigolzarrik (2015:474) aurkitu bezala.

Horretaz gain, hizkuntza gutxitu honen biziberritzeak zilegitasun handi edo txikiago izango du euskararen egoera gutxituari ematen zaion arrazonamenduaren arabera, bereziki gutxitze-egoera horien jatorriagatik. Hartara, euskara egungo egoeran halabeharrez badago, hizkuntzaren alde egitea zalantzan jarri daiteke.

³³ Aipuetako azpimarrak eta hizki larriak jatorrizkoak dira

UZK.LAN.(7) -- (Juan Carlos Borbón, 2001 in Esparza Zabalegi, 2006:211)

“Nunca fue la nuestra lengua de imposición, sino de encuentro; a nadie se le obligó nunca a hablar en castellano: fueron los pueblos más diversos quienes hicieron suyo por voluntad libérrima del idioma de Cervantes”

Testu hau kritikoki aztertuz, informazio asko gordetzen duen adierazpen ezkutua izan liteke, izan ere, “*nuestra lengua*” hasieran ez zen “*nuestra*”, Gaztelako sektore batena baizik. Halaber, el idioma de Cervantes esanda, argi gelditzen da gaztelania, behintzat, kultura-hizkuntza ‘zuria’ dela, nahiz eta Cervantes bera, esaterako, euskaldunen aurkako aitzindaria zen³⁴. Bestalde, “*los pueblos diversos*” horiek, eta ez du zehazten nortzuk diren; hori besterik ez ziren: “*pueblos*” eta “*diversos*”. Gainera, beraien aniztasuna alde batera utzi eta gaztelania besarkatu zuten, inolako inposaketarik gabe. Inposaketa azaltzen da hemen, espainiar nazionalismoak beste zentzu batean etengabe aipatzen duena³⁵, eta horrekin batera gaztelania “*lengua de encuentro*” eta “*voluntad libérrima*” kontzeptuekin lotzen da, hizkuntzaren ustezko neutraltasuna, nagusitasuna eta erabilgarritasuna azpimarratuz.

UZK.LAN.(8) -- (Herreras, 2006:16)

“Cabe señalar que la expansión del castellano se realiza sin que para ello se utilice normativas ni métodos coercitivos”

Antza, oraingoan egile honek “azpimarratu beharra” ikusten du, inork gaztelaniaren inposaketaren inguruan zalantzarik balu. Azpimarragarria da, halaber, 1) aditzak orainaldian agertzea, sakontasun/zilegitasun historiko gehiago aitortuz edota gaur egungo egoera ere deskribatuz, 2) “*realiza*” esan izana, amaitu gabeko ekintza edo iragan hurbilean gertatutakoa, beraz, eta 3) “*sin [...] normativas*” (legedia) eta “*ni métodos*” (praktikak) “*coercitivos*” aipatu izana, gaztelania ez diren hizkuntzek jasandako jazarpena zabal deskribatuta dagoenean.³⁶

Bestalde, Skutnabb-Kangasek (2000:312) aipatutako linguizidioa eta gure inguruan esan izan diren genozidio kultural eta antzeko gertaerak badira euskararen egoeraren erantzuleak, orduan argi dago euskararen alde egiten den oro betebeharra dela.³⁷

³⁴ Ikus Azurmendi (1992:304), adibidez

³⁵ Moreno Cabrerak (2009) luze eta zabal jorratutakoa

³⁶ Ikus Anaut (2013) eta Torrealdai (2001)

³⁷ [4.1.2.1. atalean](#) ikusi bezalaxe, alegia

ALD.IAN.(4). -- (Esparza Zabalegi, 2006:251)

“Navarra es diferente. Aquí la Ley de Derechos lingüísticos se hizo precisamente en contra del vascuence. Fue la única comunidad con lengua propia que no le dio carácter oficial. Se le relegó a unas reservas minoritarias sin tener en cuenta la regresión a la que la lengua había sido sometida y sin respetar la propia voluntad de los navarros de recuperarla.

Además, ¿qué justicia y qué reparación histórica supone el aceptar una situación sociolingüística derivada de una agresión de siglos? Tras un genocidio cultural ¿basta el reconocimiento de los residuos para considerar restaurados los derechos?”

Ezin esan, hain modu borobilean, “Euskararen Legea”, berak “*Ley de Derechos Lingüísticos*” deitzen duena, euskararen kontra eginda dagoenik. Izan ere, UPN eta PSNren erregimenak ondo baino hobeto lortu du diskurtso jakin baten hedapena, beraien argudiaketa ezin abilagoa tarteko: “euskara sustatu bai, baina nafarron kaltetan ez eta euskaraz mintzo diren herri bakan horietan soilik”.

Esparzak, legea eta hizkuntza eremuak zehazterako orduan, euskarak bizitako atzerakada kontutan hartu ez zela aipatzen du eta gaineratzen du “nafarren borondatea” ez zela “errespetatu”. Dena den, ez du zehazten zergatik uste duen nafarrek euskararen normalkuntzarako borondatea dutela.

Halaber, anbiguetatean jarduten du idazleak, ez baitu zehazten zenbat luzatu zen euskaldunekiko erasoan bolada eta genozidio kultural hori zertan zetzan ezkututzen duelako (Sanz, Franco, Primo de Rivera, Gaztela,... nor da erruduna?).

Interesgarria da, bukatzeko, “*reservas minoritarias*” eta “*residuos*” hitzen erabilera, lehenengoak gorago arnaguneen aferarekin agertutakoarekin zerikusia baitu eta bigarrenean hitz horrek esangura negatiboa hartzen duelako, egileak horren ordeztu “ondorioak”, “segizioa”, “emaitza” eta horrelako beste hitz batzuk erabili zitzaizkela.

ALD.IAN.(5) -- (Zutik 23 in Roca, 2007:8)

“Para ETA, en cuya generación fundadora abundaron los lingüistas, el elemento esencial para definir al pueblo vasco es el euskera –*el español y el francés son las lenguas del opresor, son lenguas al servicio del genocidio*”

Honako aipu honetan espainiar eta frantsesen deshumanizazioa ikusi daiteke eta hizkuntzei eduki ezin duten funtzio bat atxikitzen die ETAk, genozidioaren zerbitzua, izan ere, ezin ahaztu hizkuntzek ez dutela agentibitate, tresna pasiboak direla, hiztunek erabiltzen baitituzte.

Hala eta guztiz ere, badago sektore bat zeinek pentsatzen duen, euskararen egoeraren arduraduna edozein izanda ere, hizkuntzaren aldeko ekimenak ez direla zertan egin behar, “gertatu dena gertatu baita eta ez dago ezer egiterik”. Beheko aipu honetan ikus litekeen moduan, hizkuntzei buruz mintzo da egilea, baina hizkuntz hedatzaileak baztertzen ditu analisi honetatik, bere hizkuntz hedatzaileak ez baitu erregulaziorik behar bizirauteko. Halaber, adierazgarria da “*transformar en arma hostil lo que es un medio para el entendimiento*” esaldia, egilearen aurreko ikerlan batean antzeko esaldiak topatu baitziren (adib. Partido Popular, 2008:38 in Garaio, 2015:26).

UZK.LAN.(9) -- (Arteta, 1999:18)

“Son muchos los teóricos que sólo desde la consideración de la naturaleza de la lengua niegan ya que una política lingüística tenga algún sentido razonable. Para ser más exacto, los que sostienen que toda política sobre una lengua constituye un abuso intolerable, un intento a un tiempo injustificable e inútil de imponer normas a lo que no las acepta y de transformar en arma hostil lo que es un medio para el entendimiento.”

Eta hizkuntza politika bera zalantzan jartzen bada, zer esanik ez hizkuntza politika aurrera ateratzeko behar den diru-kopuruan. Lehenago ere ikusi dugu [4.1.1.3. atalean](#), baina lagineko “Hizkuntza gutxitua”, “Ekonomia” eta “Inposaketa” ataletan adibide gehiago daude. Alde bateko zein besteko ez da gustora ageri egiten den inbertsioarekin.

4.1.2.2. Euskararen inposaketa

Aurreko atalean ematen zaion erantzunarekin dago lotuta honako gai hau ere, izan ere, euskararen biziberritzearen alde ematen diren pausu batzuk inposaketa bezala ikusiak dira eta hori gai oso hedatua da lagin honetan. [2. Grafikoan](#) ikusi bezala, inposaketaren gai hau izan da adibide edo aipu gehien bildu dituen gaia, eta azkenaldian azaleratzen ari den diskurtso eraginkor eta “uzkurgarria” indartu besterik egiten ari dela erakusten du.

UZK.ALB.(4) -- (El Mundo, 2016)

“El Ayuntamiento de Pamplona, gobernado por una coalición encabezada por Bildu, aprobó ayer una iniciativa para imponer el euskera a la fuerza en las escuelas municipales”

Horrelako esaldi andana aurki litezke laginean, baina hau bereziki deigarria da inposaketaren ondoren “*a la fuerza*” jartzen duelako, hau da, indarra iradokitzen duen ekintza batek ondoan bortxazko izenondo bat daramalako. Gainera, zalantzarik da

euskara inposatzen al den hain modu borobilean baieztatzea, eta zer esanik ez “*a la fuerza*” egitea, beste biolentzia bati buruz ari ez badira behintzat.

ALD.ELK.(2) -- (E. Larrañagaren adierazpenak in Aldalur, 2015)

"Euskararen erabilera eskubidea da eta hori ez da inposatzen, bermatu egiten da"

Beste muturrean aipu hau legoke, zeinek hizkuntza politika eta haren inposaketa euskaldunon hizkuntza eskubideetara murrizten duen, aldagai eta eragile gehiago egongo ez balira bezala.

Baina jakina, gaztelaniak dituen indar etnolinguistikoa, babes maila, nazioarteko hedadura, prestigioa eta abar luze batek gaztelaniaren hegemonia azpimarratzen dute. Horren aurrean, euskal hiztunek ere nolabaiteko inposaketa argudiatu eta salatzen dute, era askotan salatu ere.

ALD.ELK.(3) -- (Baztarrikak esana, Iglesias, 2014)

"Ya se nos quiere imponer el euskera", dicen algunos. No se dan cuenta de que la imposición es obligar a alguien a cambiar de lengua. ¿Cuándo se obliga a alguien a cambiar de lengua? Cuando no se le garantiza la libertad de utilizar la lengua de su elección."

Oraingoan Baztarrika “inposaketaren” diskurtsoa deuseztatzen saiatzen da, esanez gaztelania ere inposatua dagoela eta hautatzeko askatasuna bermatzen ez dela esanez. “*No se dan cuenta*” horren bitartez framing uzkuertzaileko erdaldunei mintzatzen ari da, ziurrenik.

Inposaketaren diskurtsoaren atzean, edonola ere, ezkutuan dauden beste hainbat ideologia eta kontu daude eta inposaketatik abiatutako liskar batek laster egiten du jauzi beste gudu-zelai batetara, ondorengo aipuetan ikusi bezalaxe.

UZK.ALB.(5) -- (El Correo, 2015)

"El PP vasco ha criticado este martes que los distintos gobiernos autonómicos en Euskadi hayan destinado durante los últimos 35 años "casi 3.000 millones de euros" a "imponer" el euskera. Durante un acto en Vitoria dirigido a simpatizantes del PP, el parlamentario vasco de este partido Iñaki Oyarzábal ha acusado al nacionalismo de "discriminar" a los alaveses en el acceso a los empleos públicos por sus "imposiciones" de exigencia del euskera.

Oyarzábal ha recordado además que "miles de profesores" tuvieron que salir de Euskadi, abandonar escuelas y colegios porque la "presión" sobre el euskera les "cerraba las puertas" a puestos de trabajo, algo que se aprovechó para "poder meter de rondón a muchos nacionalistas". También ha denunciado la "red clientelar" de asociaciones creadas en el País Vasco, que viven del euskera.

[...]

En este sentido, el diputado general de Álava y candidato del PP a la reelección en los comicios forales del 24 de mayo, Javier de Andrés, ha opinado que "todo ese clientelismo que montó el PNV" al final "ha acabado siendo para la gente de Bildu, Batasuna y de toda esa morralla que anda por ahí".

Unidad Alavesakoen tankera hartzen duen mezu honetan, non arabarrak lanpostu publikoetatik diskriminatzea egozten zaien, arrazoi ekonomikoak ematen dira euskararen biziberritzearen aurka, eta 3.000 milioi euro xahutu omen dira euskara inposatzeko. Ikusten denez, gainera, euskara "exigencia" bat da.

Bigarren lerroaldean agertzen da, ziurrenik, alderaketa arriskutsu, zalantzazko eta ezkutuen, izan ere, euskararengatik Euskaditik irten behar izan ziren "milaka irakasle horiek" esanda, badirudi era oso sotilean bada ere, ETaren erasoengatik ihes egin behar izan zuten "milaka lagun horietaz" oroitzen dela PP, sarri askotan adierazi duen bezala³⁸. Laburbilduz, euskararen hizkuntza-politika nazionalistak ETaren biolentziaren ondorioekin alderatzen dira lerroalde honetan. Gainera, interes-lehia bat ikusten da lanpostu publikoen kasuan, "guretakoak kentzen baitituzte euren jendea sartzeko" Segidan, argudio ekonomikoak erabiltzen dituzte De Andrés eta Oyarzábal-ek, berriro ere, hizkuntza-politika gaitzesteko, euskalgintzan dauden eragile eta langileak "entxufe" kontuengatik lanean ari direla esanda. Euskalgintzako langile askoren egoera prekariora ez da aipatzen, edo ez da aipatu nahi.

Bukatzeko, zalaparta gehien³⁹ sortu zuen esaldia dago, "para la gente de Bildu, Batasuna y de toda esa morralla que anda por ahí", hain zuzen ere. Bildu, PPk ilegalizatu zuen Batasuna eta jendaila hori "hortik dabil" antza, etekina noiz aterako zain. Gainera, eta EAJ eta EH Bilduren lehia hauspotzeko, esan zuten EAJ-k sortutako sare hori Bildukoek hartu zutela, EAJk sortu zuen zerbait (diru publikoaz bizi den euskalgintza) Bilduren hatzaparretan erori dela aditzera emanaz. Kasu, euskalgintza ez da ezker abertzalearen hatzaparretan erori den gauza bakarra, espainiar nazionalista batzuen esanetan⁴⁰.

³⁸ <http://www.lavanguardia.com/local/pais-vasco/20140415/54405011548/voto-exiliados-eta-vuelve-primer-plano.html>

³⁹ Lagin honetako material askok zalaparta honetan dute jatorria

⁴⁰ http://www.eldiario.es/norte/euskadi/Marzo-reivindicacion-obrera-colonizacion-nacionalista_0_233777052.html

Baina esan bezala, “jendaila” ez zen isilik gelditu eta hitz horiei erantzun irmoa eskaini zien:

ALD.ALB.(3) -- (Europa Press, 2015)

“EH Bildu no permitirá que "franquistas como De Andrés y Oyarzábal" (PP) "impidan que avance el euskera" [...]. Ante actitudes totalitarias y franquistas, pide a los alaveses a redoblar sus esfuerzos a favor del euskera. [...] Confía en que la ciudadanía detendrá la involución del PP”

EH Bilduren ustez, euren burua jartzen dute euskararen defentsaren erdigunean, lehenengo pertsonan adierazten baitute euskarak ez duela PPren oztoporik jasango aurrera egin dezan. Ostean, euskal nazionalistek askotan erabiltzen duten baliabideaz jabetu ziren, jarrera anti-euskaldunak frankismoarekin (eta jarrera totalitarioekin) lotzea, alegia. Jarraian, ezker abertzaleak askotan erakusten duen jarrera azaltzen da: jendartearen mobilizazioa espero.

EAJ-koek ere erantzun zuten ika-mika honetan, nahiz eta prentsa agerraldirik eta adierazpen bortizik egin ez zuten:

ALD.ALB.(4) -- (Ortega eta Larretxi, 2015)

“El candidato a diputado general del PNV, Ramiro González, respondió a De Andrés en euskera: “Arabarrok euskara gure hizkuntz propio bat dela uste dugu. De Andresek ez du horrela ikusi nahi. Horrela ez da Araba defenditzen”.

Kazetarien sarrera aztertuz, argi dago euskaraz erantzutea ez dela ohikoa, bestela ez baitzuten ezer jarriko. Era berean, euskara ikasten ari den Ramiro González ahaldun nagusiak erabaki du euskaraz erantzun beharra dagoela, egoera larri eta berezia delako. Bestela, ziurrenik ez luke euskaraz egindako adierazpenik egingo beste gai bat tarteko balego.

González-en hitzak kontuan hartuta, ordea, adierazgarria da euskara “hizkuntz propio bat” eta ez “hizkuntza propioa” esan izana, edota bere burua arabarron usteen ordezkari bezala azaltzea. Bere interpretazioan, 1) De Andrés-en itsukeria da gaizki dagoena eta 2) Araba “DEFENDITZEKO” euskarari buruzko horrelako gauzak ez dira esan behar.

“Herriaren nahia”⁴¹ eta “Hizkuntza politikarako bideratutako dirua” gai diskurtsiboek informazio gehiago ematen digute inposaketaren inguruko talka hau ulertzeko asmoz.

⁴¹ Gai honetan azpimarratzen da herriak nahi duena egin behar dela, norbere intereserako, jakina.

4.1.2.3. Hizkuntza eskubideak eta askatasuna

Inposaketaren aurkako antidoto nabarmenena hizkuntza eskubideak eta “norbere hizkuntza hautatzeko askatasuna”⁴² dira eta hau bi aldeek erabiltzen dute neurri berean. Badirudi, beraz, Euskal Herrian dagoen egoera diglosiko honen arazoa hizkuntza eskubide eta askatasunetara mugatzen dela. Horrenbestez, eta kontutan hartuta aurreko esaldian “eskubide” eta “arazoa” agertu direla, Ruiz-ek (1981) proposatutako “hizkuntzen inguruko hiru erduetatik” bi daude abian “ Euskal Herrian. Hots, edo “hizkuntza arazo bat bezala” ikusten da, edota “hizkuntza gizabanakoaren eskubide ukaezin bezala”. Honek guztiz bazterrean uzten du hirugarren eredia, hau da, hizkuntza aniztasuna ere aukera bezala ikustea.

Hurrengo aipuetan jasota dago hizkuntza eskubideen inguruan sortu den joera hau, bai alde batean, zein bestean.

ALD.I-A.(4) -- (EHE, 2015)

“Eta helduen artean ere lan munduan, bereziki arlo publikoan, “inposatu” egiten omen da. Noski, euskaldunon hizkuntz eskubideak... aipatu ere ez. Zertarako? erdaldunen “eskubideak” euskaldunon eskubideen gainetik. Zer gertatuko litzateke, enpresa publikoaren ordezkari enpresa pribatuari buruz ariko bagina eta euskararen ordezkari ingelesari buruz ariko bagina?

[...]

Aukeratzeko eskubideaz aritzen dira lotsarik gabe, Espainiako konstituzioak hitzez hitz (3. artikuluan) gaztelania jakitea derrigorrezko egiten duen bitartean. Euskaldunoi egunerokotasunean erabili nahi dugun hizkuntza aukeratzea ukatzen zaigun bitartean. Inkultura goraipatu eta hizkuntz eskubideak zapaldu egiten dituzte... “askatasuna”ren izenean! Bistan da, 36an bezalaxe, Ciudadanos-en proiektu politikoan espainola ez diren hizkuntzak soberan daudela. Beste batzuentzat ere, tamalez, diskurtsoan zuzenean ez aitortu arren, euskara hutsaren hurrengo da.”

Aipu mamitsu honetan ez da gehiegi sakonduko, dagoeneko ezaugarri batzuk ongi azalduak izan direlako, baina txanponaren beste aldean ageri dira, beste behin, Konstituzioaren inposaketa, euskaldunen hizkuntza eskubideak, exotaldearen deshumanizazioa (“inkultura goraipatu”), askatasuna eta Frankismoari eta linguizidioari aipamena (“36an bezalaxe”)

⁴² Ikus Llinoles (1972) eta Garaio (2015) “askatasuna” delako diskurtso horri buruz gehiago jakiteko

UZK.ALB.(6) -- (J. Azkue PSEko legebiltzarkideak esana, Europa Press, 2016)

“Vivir en euskera no es un derecho fundamental y básico, sino una opción estrictamente personal”

Asko zabaldu da azken urte hauetan euskaraz bizitzearen aldeko mezua, baina hemen erdaldunek duten aukera/pribilegio/errealitate/eskubide hori ukatu egiten da.

Gainera, esatea euskaraz bizitzea aukera hertsiki pertsonala dela euskal komunitatearen sakabanaketa eta erdaldun elebakarren eragina ukatzea litzateke.

UZK.ALB.(7) -- (Educaon, 2016)

En el escrito destacan que los estatutos de la UPV establecen que **los alumnos “tienen derecho a estudiar y realizar la evaluación en cualquiera de las lenguas oficiales** elegida en el marco de la programación docente”.

En su queja, **se consideran “discriminados”** con respecto a los compañeros que estudian en euskera “a quienes no se les exige, sino que se les presume el conocimiento del idioma en castellano, sin que sea necesaria su acreditación”.

Bereziki duela urte bete eztabaida sortu zen euskarazko Medikuntzako ikasleek ezin zituztelako euren ikasketak euskaraz egin⁴³. Jakina da EHUko ikasle askoren arazoa dela hori. Duela urte eskasetatik hona, erdarazko Magisteritzako ikasleena ere azaleratu da, ikasgai batzuetan euskara eskatzen zaiela eta. Beraien kasuan, euren eskubideak urratu eta diskriminatuak sentitzen dira, argudiatuz ikasle elebidunek (euskaldunek) ez dutela gaztelania ziurtagiririk/mailarik lortu behar. Baina, salbuespenak salbuespen, ezaguna da L hizkuntzak gizarte diglosikoetan duen garrantzia eskasa eta bere hiztunek agertzen duten elebitasuna, hizkuntza hedatzailea ere menderatzen baitute.

Edonola ere, eta lehen aipatu dugun deshumanizazioarekin lotuta, badirudi talde batzuk hizkuntza eskubideak dituztela, eta besteenak, berriz, ez direla kontuan hartzen edo aitortzen. Hemen bi gauza izan behar dira buruan: alde batetik, aldarrikapenaren eta inposaketaren artean dagoen hari fina (Harizmendi, k.p.) eta hizkuntza eskubideen urraketa tradizio hau etikaren ikuspegitik hartzeko tradizio eza.

⁴³ <http://sustatu.eus/1431953123>

UZK.TXI.(1) -- (Naiz.eus, 2015)



5. Irudia: PSEko Gazteriak ateratako kanpaina.

Euskararen askatasuna lehenago ere azaldu da ikerketa lan honetan, baina adibide hau jartzea komenigarria iruditu zaigu, berriro ere askatasuna, inposaketa, politizazioa eta euskararen balio eskasa lotzen direlako. Bereziki aipagarriak dira 1) euskarari atxikitzen zaion tokia euskal gizartean (ligatzeko/komunikatzeko traba, eta antza denez, “txortan ez egiteko” arrazoiak) eta 2) horren ostean EAJ eta EH Bildu euskararen etsai deitzea.

Irakurketa arintzearen, ez dugu gehiegi sakonduko, baina lagineko “Profesional ona ala euskalduna” eztabaidan ere argi ikusten da hizkuntza eskubideen urratzea eta exotaldearen dehumanizazioa daudela atzetik, izan ere, zergatik ez dute bada besteek nire eskubide berdina izan behar? Ez ote dago exotaldean inor, adibidez, ni baino mediku hobe denik?

4.1.3. Ezinikusitik gatazkara igarotzeko hiru tresna

Orain arte ikusi den bezala, hainbat gairen inguruan lerrokatu da gatazka diskurtsibo hau. Gatazka hori, ordea, baliabide lexiko, semantiko eta diskurtsibo batzuen eraginez gotortu da. Ondorengo lerroetan azalduko dira zertan diren hiru baliabide horiek.

4.1.3.1. Gerrako hiztegia erabiliz⁴⁴

Atal labur honetan ikusiko da hizkuntza-gatazka honetan erabiltzen diren hitzek beti haiekin dakartela ‘beste aldearekiko’ aurkakotasun bat, eraso-defentsa jarrera eta praktika argi batekin lagundua.

Hau honela, gehien erabiltzen diren hitzak beheko zerrenda horretan ageri direnak dira, inondik ere kutsu garbi bat dutenak:

- defendatu
- gaitzetsi
- babestu
- aldarrikatu
- goretsi
- euskararen etsaiak
- euskararen heroiak
- erantzun
- ingeniari-tza soziala
- zapaldu
- aurpegi-ratu
- baztertu
- garaitu
- salatu
- ...

4.1.3.2. “Lip-service”⁴⁵

Ingeleraz ahoz zerbait egingo dela hitz ematea eta gero, praktikan, ez egitea litzateke *lip-service* delako kontzeptu hau. Horrela, lan honetan ikusi dezakegu euskara edo gaztelaniaren aldeko hitz eta ekintzak adierazi bai, baina adierazpen horiek hutsalak direla edo ez dutela eduki sakonik, ez baitira zintzotasunez egiten.

⁴⁴ Lagineko “defendatu” gaia da hau

⁴⁵ Lagineko “paternalismo” etiketapean sartu dira adierazpen hauek

UZK.I-A.(3) -- (Ángel Acebes, 2003 in PSE No, d.g.)

“Esta es una operación en defensa y protección de los derechos y libertades de los vascos, de su cultura, de su pensamiento y de la expresión de su lengua en libertad”.

Iraingarria izan daiteke, aipu honen argitan, Euskaldunon Egunkaria itxi berritan euskararen defentsan ari zarela esatea, bereziki Estatu bezala zure (garai horretako PPrena, esan nahi da) hizkuntza-politika elebakarra denean. Hala ere, ondorengo aipuan ere antzeko zer bait ikusten da.

UZK.I-A.(4) -- (Pimentel, 2003)

“Bien está lo que bien acaba. No compremos la paz a Batasuna, pero no caigamos en la trampa más burda: que los ciudadanos vascos puedan entender que estamos contra el euskera. Al contrario, nos parece una lengua hermosa, digna de protección. Que la hable quién quiera, y que, con libertad y paz, se utilice en las pruebas deportivas que así se desee.”

Oraingoan, ordean, mezu gehiago txertatzen dira mezu berdinen barruan. Izan ere, “gatazka armatu-politiko” (Batasuna), euskararen izaera gatazkatsua (“ez dezatela euskal hiritarrek pentsa euskararen kontra gaudela”) eta askatasuna eta inposaketa (“nahi duenak hitz egin dezala, bakean eta askatasunez”) agertzen direlako. Edonola ere, Estatuko ministro bezala, argi dago Pimentel-el bere burua euskaratik urrun kokatzen duela bere burua (“Que la hable quien quiera”, “que así se desee”, “nos parece una lengua hermosa”,...). Ginga jartzeko, esatea euskara “*digna de protección*” dela argigarria da, horrek ateak ixten baitizkio, adibidez, euskaraz bizitzeari, euskara hizkuntza nazional mailara sustatzeari, eta abar luze bat. Euskara, soilik babestua izan liteke, desagertzear dauden animalia espezieak bezala.

4.1.3.3. Zientzia eta azterketa zientifikoekiko mesfidantza⁴⁶

Esan liteke euskararen egoera zein den aztertu nahi duenak baduela non begiratua, eta hori, zalantzarik gabe, Hizkuntza Politika Sailburuordetza eta Soziolinguistika Klusterraren ekimen berritzaileen ondorioa izan da. Edonola ere, alde bietan kritikatuak dira azterketa zientifiko hauek, hainbat arrazoiengatik. Edonola ere, beti badirudi kritika horren atzean dagoen arrazoi nagusia azterketa horien arduradunaren gertutasun ideologikoa dela. Hots, neurketa hori kritikatu dut, batik bat, baldin eta egileak nire pentsakeratik urrun badaude.

⁴⁶ Laginean, “Kontzeptuak asmatzen” gaia

Hurrengo bi aipuak FAES Fundazioak argitaratutako “*Libertad o coacción lingüística*” liburutik aterata daude, eta zehatzago esanda, Amando de Miguel-ek idatzitako “*Sobre la validez de las encuestas sociolingüísticas*” ataletik. Bi aleetan argi ikusten da ezin dela nazionalisten ikerketa eta datuetaz fidatu, eta lehenengo aipuan esan bezala, gaztelaniaren nagusitasuna eta hizkuntza gutxituen egoera fidagarria ezagutarazteko momentua iritsi dela, izan ere, pentsa liteke ikerlari makro-nazionalistak hobeak direla. Bestalde, piramide edo obra handi bat eraikitzen den bezalaxe ere altxatzen omen dira inkesta soziolinguistiko handiak.

UZK.LAN.(10) -- (de Miguel, 2007:259)

“Ha llegado el momento de levantar una gran encuesta sociolingüística dirigida a toda la población española”

UZK.LAN.(11) -- (de Miguel, 2007:253)

“El engaño fundamental de las encuestas sobre el conocimiento de la lengua es que socialmente se considera un desdoro no dominarla”

Hurrengo aipuan erakunde oso bat jartzen da zalantzan, “PSE edo espainolen eskutan” dagoen Euskobarometroa, alegia. Inposaketaren aldeko mezua zabaltzen ari omen dira Euskobarometrotik, komunikabideei erdaraz eginda dauden titular ‘susmagarriak’ helarazten dizkiete,... Nola ez dute ba emaitza okerrik kaleratuko, Uriaren iritziz?

ALD.I-A.(5) -- (Uri, 2012)

“ “Euskararen ikasketa presaka eta inposaketen bidez sustatzearen alde zaude?” Boteprontoan, zer esango zenuke? Edozerekin funtziona dezake Euskobarometroaren esaldi horrek.

[...]

Francisco Llera *Basta ya!* plataformako eta PSEko kide ohiak daraman Euskobarometroa zulo beltzez beteriko txostena da. Komunikabideei bidaltzen zaizkien txostenetako titularrek joera susmagarriak dituzte. Gainera, espainieraz daude huts-hutsean. Ez dut esan nahi horrek hizkuntza politikaren erantzunekin zerikusia duenik, *que va.*”

Baina horretaz gain, eta batik bat alde uzkurrean, soziolinguistika eta soziolinguistak kritikatzeko dira, ustez duten neurtasun faltagatik. Soziolinguistikari

egiten zaion kritika hau ez da berria eta orain azalduko ez diren hainbat arrazoi daude honen atzean.

Halaber, eta zientziarekin bukatu aurretik, kontzeptu zientifiko eta datuen ageriko manipulazioa⁴⁷ behatu izan da bi aldeetan. Hori dela eta, alde bakoitzak bere diskurtso eta interpretaziora hobeto egokituko diren datuen eta kontzeptuen erabilera egingo du, batzuetan kontzeptu horien izatea guztiz aldatuz, eta bestetan, berriz, kontzeptu eta datuak guztiz asmatuz.

UZK.I-A.(5) – Pegenaute, Nafarroako Hezkuntza Sailburu Ohia (P. Bilbao, k.p.)

“Nik ere eskubidea dut ETB ez ikusteko” (ETB Nafarroan ikusteko ezintasunaz ari zenean)

Euskaraz bizitzeko eskubiderik ez bada esistitzen, are gutxiago, orduan, zerbait ez ikusteko eskubidea. Gainera, telebistaren kasuan zure hautua da zerbait ikustea edo ez ikustea, nahiz eta Pegenautek horrela ez ikusi.

Ikerketa honetako lehentasunak beste batzuk direla iritzita, ez dira hemen aipatuko datuen manipulazio eta kontzeptuen asmatze guztiak, baina fenomeno oso hedatua da orokorrean.

4.2. Beste aldagai batzuk esaten digutena

Aurreko ataletan gai batzuek elkarren artean zuten harremana azaltzen saiatu da. Hala ere, badira gai eta aldagai batzuk azterketa honetatik kanpo gelditu direnak edota horrelako arretarik eskaini ez zaienak. Bi lerroaldeetan laburtuko dira emaitza horiek, informazio osagarria eskaini dezaketelakoan.

Lehenik eta behin, esan beharra dago lan honetan erabili diren aipu gehienak testu landuetatik hartutakoak izan direla, zalantzarik gabe sakontasun eta aniztasun gehiago zutelako. Saltsa politikoan kokatutako albisteek “talka” izaten zuten hizpide, baina jorratutako gaiak, gehienetan berdinak ziren (“inposaketa”, “eskubideak” eta “askatasuna”).


Bigarrenik, eta [aurrerago ondorioetan](#) esanda bezala, lan honetan diskurtsoen bilakaera ez da sobera aztertu, baina labor esanda, eta ETAk 2011n su-eten iraunkor baldintzagabea sinatu zuenetik, diskurtsoaren eta salaketen gogortasuna ere jaitsi egin da. Hartara, tira-bira eta eztabaidek ezkutuko forma hartzen hasi dira eta hizpide diren gaiek beste alor batzuk dituzte oinarri, hizkuntza komunitateen botere ezberdintasuna bereziki.

⁴⁷Hau ez da berria, Garaio (2015:36) antzeko zerbait topatu zuen PPren hauteskunde programa gehienetan.

5. Ondorioak

Lan honi amaiera eman aurretik, emaitzetan ikusitakoa modu laburrean laburtzen saiatuko da orain, ikerketa-lan honek eskaini duena eta aurrerantzean ere eskaini dezakeena hobeto ulertzeko.

Horrela, egilearen ustez bi/hiru dira ‘dilema’ hau argitzen dituzten galderak (edo galdera horri emandako erantzunak, hobeto esanda):



3. grafikoa: euskararen gatazkaren deskribapena. Iturria: egileak egina.

1. Zer da euskararen gatazka?

Euskal gatazka ETaren ‘ankerkeria soila’ izan bada, orduan, argi dago ez duela merezi terroristen nahien aurrean makurtzea, eta hor, beraz, politika abertzale erradikalen deusestatzea eta egindako mina aitortzea eskatzen da, baita hizkuntzaren inguruan ere. Kokaleku horretan, euskararen biziberritzeak ez du zilegitasunik.

Ordea, euskal gatazkak Espainiaren barne-kolonialismoan⁴⁸ badu sorrera, orduan bai, eta euskararen egoera gutxiak (linguizidio eta genozidio kultural baten ondorioz) errudun bat du, Espainia, eta biziberritzea egin beharreko zerbait da.

2. Zein nazio eta zein nazio mota aldarrikatzen duzu?

Horren erantzunaren arabera, gizabanako edo taldearen ideologiak ebatziko du “Nazio bat, Hizkuntza bat” eredu jarraitu nahi duzun zure balizko herrialde horretarako, herrialde hori edozein delarik ere.

Zuk irudikatutako nazio-mota horretan gizabanako eta talde sozial-etniko-kultural-politiko... batzuk egongo dira, eta zure irudimenean dago talde horiei eman behar zaien tratamendua, edo tratamendu eza. Beraz, eta Goirigolzarrik (2015:491) ikusi bezala, gatazka honetako alde batzuk ez diote babesik aitortzen beste aldeari, hizkuntza eskubideen eta babesaren subjektuak beraiek soilik direlako. Hau argi ikusten da “Hizkuntza eskubideak eta askatasuna” gai diskurtsiboan.

2a. Zein urrun joan beharko ginatke hizkuntza gutxitu bat biziberritzeko?

Galdera hau aurreko galderarekin estuki lotuta dago, baina informazio osagarria eskaintzen digu zalantzarik gabe, norberaren ideologiak eragiten baitu kasu honetan euskararen alde egin beharko litzatekeena aldarrikatzerako orduan. Horrela, “Hizkuntza eskubideak eta askatasuna” eta “Euskararen inposaketa” gaiak jartzen dira jokoan kinka honetan, izan ere, galdera honi ematen zaion erantzunaren arabera euskara/gaztelania inposatu egiten da gizartean eta euskaldunon/erdaldunon hizkuntza eskubideak urratu eta askatasuna ukatzen zaigu.

Ziurrenik irakurleak igarriko zuen bezala, gai-txiki edo *trope* horietako asko oso lotuak zeuden (*discursive strands* edo harilkatutako gaiak), eta batzuetan zaila zen ezberdintzea zehazki zein arlotan kokatzen zen aipu hori. Honek bi gauza baieztatzen ditu, ziurtasun osoz:

1. Egoera konplexua dela eta izeberg-aren teoriari jarraiki, liskar, uste eta gertaera guztien nahasketa eta ondorioa direla hizkuntza gatazkak
2. Hizkuntza gatazka hau ez dela inolaz ere uniforme eta estatikoa eta hainbat esparru ezberdinetan kokatuta dagoenez, beste horrenbeste ikuspegietatik aztertu eta beste horrenbeste bide hartu behar direla konpontzeko.

⁴⁸Adrey-ri (2009:165) jaramon eginez

Hasieran esan bezala, soka-tira lehiaketa etengabe bat izan da lan honetan aurkitu dena, non esan litekeen talde espainiar-uzkurak duela pisu eta ekimen gehien, besteak beste, kategoria ezberdinetako taldeak direlako bi taldeak, pisu ezberdinekoak. Dena dela, alde ‘euskaldunak/aldarrikatzaileak’ ez du amore eman eta tiraldia luze doa denboran. Aspaldiko aipu bat ekarriko dugu hona, lehia batere aldatu ez dela ikusteko:

“Ninguna de los dos ha conseguido imponer a la otra un estado de monopolio unilingüe absoluto. Ello no significa, sin embargo, que la competición haya concluido, ni siquiera que se haya atenuado. Porque se trata, en realidad, de una auténtica competición, de un conflicto lingüístico. Conflicto que, en caso del euskera/castellano, es un combate por la hegemonía y el monopolio sobre la comunicación de toda la comunidad.” (Eusko Jaurlaritza, 1983:15)

5.1. Ondorio zehatzak

Llinyoles-ek proposatutako [gatazken sailkapenaz](#) baliatuta, esan daiteke gatazka bat egon badagoela, eta bai zeharka eta bai modu zuzenean lotutako hainbat gaik ondorioztatzen dutela hori. *“Discursive strands”* edo diskurtsoen harilkatzeek erakusten dute Ricentok (2000:4) eta Kroskityk (2000:7) hizkuntza ideologiei buruz esandakoak, hau da, beste ideologia zabal batzuen parte direla, are gehiago (hizkuntza-)gatazka egoera batean gaudela kontutan hartuta.

Halaber, esan beharra dago “maskara jarrita dauden” kide asko daudela oraindik, hau da, hizkuntza gatazken inguruan egindako adierazpen hauek ez dute, askotan behintzat, euskararekin berarekin zerikusi zuzenik, eta gatazka armatua eta linguistikoa konpontzen joateko maskara horien atzean sakoneko zein arrazoi dauden aztertzea komeni da.

Berriro ere, 1983 urteko hitz batzuek berriro hartzen dute indarra gure 2016 urte honetan:

“[...] el euskera sigue siendo una bandera de combate lingüístico que sintetiza otros combates más soterrados y profundos.” (Eusko Jaurlaritza, 1983:219)

Era berean, eta hau etikaren ikuspuntutik begiratuta esan behar da, aldarrikapenaren eta biolentziaren arteko haria oso fina izan daiteke eta tentu handiz egin beharko lirakeke adierazpen batzuk, izan ere, gure desira batzuek besteen bizimoduan eragina izan dezakete, Txepetxek zioenaren harira (1991:243). Iruñeko haurreskoletan gertatu dena jarriko da adibide gisa, non euskaldunen eskubideak urratzen zituen eta euskararen normalizazioa oztopatzen zuen haurreskola euskaldun kopuru urria zegoen. Udaletxe berriak bi eskola euskaldun ireki ditu baina konturatu gabe auzo horietan zeuden guraso ez-euskaltzaleak aukerarik gabe utzi dituela, beraien haserrea, eta beharbada, ezker abertzalearen eta euskararen aurkako sentimendua sortuz⁴⁹. Honekin esan nahi dena da, eta are gehiago

⁴⁹ Kasua M. Harizmendik aipatua izan da egileari, komunikazio pertsonal baten bitartez

gatazka egoera batean, erabaki ‘on’ eta ‘bidezko’ batek arrakala sortu dezakeela, beste aldea ez badago ados.

Bestalde, Harizmendiren hitzetan (k.p.), hizkuntzaren gatazka hau ukatu egin da, lan honetan agertu diren liskar horiek ezkutatu egin dira eta ikusezinak bihurtu direnean alde-bakarrekoak bilakatu ditu alde batek edo besteak. Hau da, ez da bi hizkuntza-komunitateen ardura eta mina azalerazi, alde bakarrarena baizik. “Euskara, hainbeste balio ez duen hizkuntza, inposatu egin digute” izan da batzuen esanetan; besteek “horiek euskara desagerrarazten saiatzen dira” esango duten bitartean. Ezin dena ezkutatu, ordea, jendearen sufrimendua da, jendeak sufritu egin du, baita hizkuntzen arteko edo hizkuntza horien hiztunen arteko botere lehiarengatik ere. Acebes-ek Egunkaria itxi zuenean egin bezala, fribolizatu egin da euskal gatazkarekin, oro har, eta euskararen gatazkarekin, zehazkiago esanda.

Horren aurrean biktimen eskubideak aitortzea besterik ez da falta, hau da, benetakoa eta partekatua den egia, justizia eta erreparazioa izatea (Harizmendi, k.p.). Jakina, baita hizkuntzaren gaian ere.

Dena den, sarri lan honetan zehar “euskaldunak” eta “espainolak” etiketa zurrinak jarri direla eta, aitortu behar da berriro ere, gatazka honen parte diren kideak taldekatze hertsia hori baino zabalagoak direla, hau da, Martinez de Lunak (2013:19) euskararen bi framing-en kasuan aipatu zuen bezala, ikusmolde hori partekatzen dutenak ez dutela modu berean egiten, continuum baten barruan aztertu behar direla, alegia.

Beste era batera esanda, gai bat dela medio gatazkan daudenak “euskaldunak” eta “espainolak” izango dira, adibidez, euren ikasketak bere hizkuntzan egin izan ditzaketen EHU-ko ikasleen kasuan; eta beste gai bat hizpide hartuta, adibidez, euskararen inposaketa, gatazkan daudenak framing aldarrikatzaile eta uzkurreko parte diren kideak izango dira.

5.2. Nola hobetu daitekeen lan hau

Hain zuzen ere, lan honek kontuan hartu behar diren ahulgune batzuk ditu, inondik ere ezkutatu behar ez direnak. Gaia bera berritzailea da, ikerlana egiteko abiapuntua bera ere bai, eta tradizio falta honek eragingo zuen ikerketa modu batean ala bestean enfokatzerako orduan. Edonola ere, pentsatzekoa da lan honek jarraipena izan dezakeela gurean, bai eremu akademikoan eta baita gizarte-mailan ere.

Lanaren ahulguneekin hasteko, gaztelaniazko eta ‘espainolen/uzkurren’ aipu gehiago erabili dira laginerako. Hizkuntzarena ulertzen da, gure inguruan gaztelaniazko hedabideen kontsumoak duen nagusitasuna dela medio. ‘Espainiarren’ aipu gehiago erabili izanak, berriz, bi azalpen izan ditzake, 1) alde honek ‘ekarpen gehiago’ egin dizkiola gatazkari modu diskurtsibo publikoan edota 2) egileak, hainbat arrazoiengatik (gatazkako talde bateko parte izatea, aipu gehiago aurkitzeko gai ez izatea, etab.) euskaldunen aipu esanguratsu gutxiago topatu izana, nahiz eta sarean eta liburutegietan hor izan.

Onartu beharra dagoen beste hutsune bat Euskal Herriaren zati bat ikerketa honetatik baztertu izana da, izan ere, eta egilearen frantsesa ulertzeko zailtasunak direla medio eta

Ipar Euskal Herriko errealitatea urrunago dagoenez, Hego Euskal Herriko aipuak aztertu dira soilik.

Interesgarria litzateke jakitea zer gertatzen den muga politikoaren beste aldean, baina egilearen hipotesia da han ez dagoela euskararen gatazkarik, edo ez behintzat Hegoaldean bizi dugun intentsitatearekin, euskaldunen pisua politiko-demografikoa apalagoa delako eta ‘euskal gatazkak’ izandako ondorioak ez direlako hain gordinak izan. Hala ere, azken urteetan Iparraldeak bizi izan duen iraultza demografikoarekin⁵⁰, non Frantziako adineko kopuru nabarmena mugitu den bizitzera, eta azkenaldian Antzina gazte erakundeak frantses hutsean dauden kartelei egindako erasoekin, gatazka edo norgehiagoka berri bat aurreikusi daiteke. Ikusteko dago Lurraldego Bakarrak zein eragin izango duen bi komunitateen arteko harreman orekatuago batean.

Lan hau hobetzeko beste ezaugarri batek ere laginarekin du zerikusia, izan ere, aipuen gehiengoa komunikabideetatik aterata dago eta ezin izan da liburu zientifiko edo filosofiko landuagoetakoa gehiago aztertu, salbuespenak salbuespen. Pentsatzekoa da komunikabideek, alderdi politikoengandik hauspotuak diren heinean, igortzen duten mezuei eta gai gatazkatuetatik helburu ekonomikoa (gehiago saltzea, gai horren hedapenaren ondorioz) eta politikoa (boto gehiago lortzea edo gizartea beraien aldera lerrokatzea) dariela⁵¹.

Ordea, ikerketa-lan landuagoetan, gai bera beste ikuspuntu zientifikoago batetik hartu ahal daiteke, beraz, aukera gehiago eman ditzake gatazka bera beste modu sakonago eta osoago batetik aztertzeko. López Basaguren, Arteta, Juaristi, Azurmendi eta Esparza Zabalegiren lanak aztertu dira lan honetan, besteak beste, eta esan beharra dago mamitsuak izan direla jasotako aipuak.

5.2. Hemendik aurrerakoak

Lan honek euskal gizartean egin dezakeen ekarpenarengatik, uste da egitasmo hau ez litzatekeela hemen amaitu beharko, izan ere, lan-ildo hau jarraitzeko hainbat aukera baitaude.

Lehenik eta behin, azterketa kualitatibo honek beste ikerketa kuantitatibo batzuek aberastuko lukete, adibidez, hizkuntza-gatazka honen biktima kopuruaren neurketa bat edo eragindako kaltea aztertzea. Edonola ere, ikerketa kualitatibo gehiagok ere lan hau hedatu ahalko lukete. Hau honela, eta EGOD egitasmoak egin bezala, mahai edo gai baten inguruan hainbat eragile eta gizabanako garrantzitsu jarri litezke eztabaidatzen, pentsatuaz horrela informazio eta ondorio gehiago atera ahalko direla. Delphi teknika, eztabaida taldeak, teknika parte-hartzailea, ... denak dira aukera ona lan hau zabaltzeko.

Bestalde, EGOD egitasmoak ere erabil dezake lan hau bere txosten eta lagin moduan, izan ere, Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoaz ari garenik, ez al da

⁵⁰ Ikus ikerketa-lerro [honen](#) emaitzetan honi buruzkoak


⁵¹ Hau hizpide izan dugunez arestian, *agenda setting* eta *priming* delako kontzeptuak azaltzerakoan

funtsezkoa izango muturrean dauden bi aldeen diskurtsoak ezagutzea? Are gehiago, ez al da errazagoa izango adostasuna ahalbidetuko duen erdibidea aurkitzea bi muturrak zeintzuk diren ezagutu ondoren?

Halaber, lan honetan aztertu dena, bereziki, ikuspegi sinkroniko batetik aztertu da, eta komeni litzateke ikertzea denboran aurrera joan ahala eta momentuko gertakariekin lerrokatuta, diskurtso gatazkatsu hauek zein norabidetan aldatu diren. Beste era batera esanda, ea Espainia eta ETaren arteko biolentzia boladek, edo su-etenek eta elkarriketek, edota Ibarretxe planak, edota horrelako beste gertaeraren batek eragin ahal zuen diskurtso hauen eraldaketan.

Horretaz gain, eta apur bat kontraesankorra dirudien arren, hizkuntza(k) gatazkaren erdian sartu behar dira, gaur egun duten izaera gatazkatsutik ateratzeko. Hots, euskararen gatazka derrigorrez sartu beharko da gatazka handiago honen konponketaren barnean, horrela izango baitu aukera argiena euskarak alde guztiek partekatutako adostasuna eta sostengua izan dezan. Gogoratu marko teorikoan gatazkak mesedegarriak izan daitezkeela aipatu dela. Halaber, euskararen gatazka ulertzeak euskal gatazka zabalagoa ulertzen ere lagunduko digu, [2.5.3. atalean](#) ikusi dugun bezalaxe eta [4.1.1. α.-eko aipuan](#) azaldu eran. Era berean, ezin da ukatu balizko bizikidetzaren egoera horretan izango dutela beste hizkuntzek (gaztelania eta frantsesa, alde batetik; ingelera, bestalde; eta Euskal Herrian dauden gainontzeko hizkuntzak, hirugarrenik) paraleloan, aldi berean eta zaratarik gabe garatzeko aukera.

Eta zer egin behar da adostasun hori lortzeko? Bada, gatazken konponketarako teknikak aplikatu daitezke hemendik aurrera, kasu honetan hizkuntzen eta haien hiztunen arteko gatazka konpontzeko asmoz. Honen harira, Galtung-en hirukiek informazio anitz eskaintzen digute gatazka konpontzeko eta adibidez, sormena bezalako bertutea erabili behar da gatazkak sortu duen min guztia goxatu eta testuinguru abegikor eta lasaiago bat eraikitzeko, Miren Harizmendi adituak dioen bezala.



6. Irudia: biolentzia motak. Iturria: Galtung, 2000

